

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko azaroak 26

214. zenb.



**Ongi
etorri
gurera**

**Herri Komunikabideen
II. Jardunaldiak**

Musika

Jardun

AEDren hamargarren urtemuga eta ARRASATE PRESSen bostgarrena

**Mikel Markez
Anje Duhalde
Niko Etxart
Lanperri eta
Miliku**

**ETA HAINBAT
SORPRESA!!**

Antolatzaileak

AED.

Hamar urte egunez egun Arrasate
euskalduntzen

ARKO.

ARRASATE press **BOST**
urtez

PRESS.

Ostiralero Press



**Azaroak 26
OSTIRALA
Gaueko 10etan
Arrasateko
Kiroldegian**

Astelehenetan itxita

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa

79 42 22

Ecuador

Bidaiak


Kontzeziño, 2

ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Enpresa izpiritua

Beren kasa zerbitzu bat martxan jarri duten lagunetako bat aurkitu nuen aurrekoan eta ekarrekin hitzegin genuen aspaldiko partez. Aipatu zuen zeintzu ziren beraiek ematen zituzten zerbitzuak eta nola zeramaten beraien enpresa.

Eta komentatu zuen: Bai, enpresa izate hori txartzat jotzen genuen lehen, baina orain hor gaude sartuak. Eta aipatu genuen enpresari izateak, esplotatzaile izatea esan nahi zuela lehen, besteren bizkarretik bizitzea.

Gehiagotan ere azaltzen dira enpresa hitzaren aurkako jarrerak eta enpresari izateko modu desberdinez doa nire erreflexioa.

— Hezkuntzan: Batzuei belarriko mina egiten die hezkuntza proiektu bat aurrera ateratzeko enpresa planteamendua behar dela esateak.

Dirudienez, enpresa planteamenduz hitz egitea, balore ekonomikoari lehentasuna ematea dela uste dute.

Eta beste zerbait da beraientzat, adibidez, OHOk haurren %90-95ak ikasketak gainditzeko giza-baliapideak eta instalakuntza eta materialak bideratzea.

— Kooperatibetan: Elkarteak bazkide direnek osatzen dute kooperatiba. Bazkide legez, eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte lanean dihardutenek, eta guztiek dute zeresana espresaren etorkizunerako planetan, irabazi edo galeren banaketan, ordainsarrietan eta beste hainbat gauzetan.

Egia da haserako berdintasun honetan baduela eraginik gero lantegian bakoitzak duen lanpostuak, aukera gehiago eta gutxiago emanez aginpidetan parte hartzeko. Ikuspegi honetatik, zenbait bazkidek "besteena" jotzen dute lantegia, aginteko postuak dituztena, haiek izanik enpresariak eta beraiek langileak.

—Langintza guztietan: Langabezia handia izateaz gain, egunero sortzen dira asma-kizun berriak. Norbera ez bada arduratzen haien berri jasotzeaz eta eguneroko errutinarekin jarraitzen badu, denbora luze gabe

zaharkitua geldituko da bere lanean. Beste batzuk ideia berriekin etorriko dira eta bazterrean geldituko da. Ez da bakarrik gauza berriak egitea; baita ohizko eginkizunak modu berri batean egitea ere, kalitatea eta efikazia hobetuz.


Eta hau ez da bakarrik kotxe fabrikazioan eta elektrotresnetan aplikatzen. Berdin balio du irakaskuntzan, administrazioan, nekazaritzan, arrantzan... enpresa txiki eta handietan.

Hontaz, esan genezake enpresaria izatea ez dela helburu ekonomikoaren atzetik ibiltzea, ez eta lantegia aginteko postuei erantzutea ere, are gutxiago eguneroko errutina jarraitzea. Honek guztiak eraginik badu enpresagintzan, baina ez da garrantzitsuena.

Enpresaria izatea, helburu bat lortzeko beharrezko baliapideak bideratzeko ekimen iraunkorra da, berarekin dituen arriskuak onartuz eta gainditzeko bitartekoak jarritz.

Beste kontu bat da gizarteak ontzat ematen dituen enpresa horrek emandako ondasun eta zerbitzuak eta lortutako irabazien erabilera.

RUFINA OLASAGASTI



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikaibideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 08 15

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Vallés.

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

I z a d i

*Sendabelarrak, dietetika eta
kosmetika naturala.*

*Sendagile naturistaren
kontsulta*

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

••••

Mila esker, Arrasate

Bihotzez eskertu nahi genioke Arrasateko herriari Bosniarako materialaren bilketak izan duen arrakasta.

Igandean, 22an, Astigarragan SOS Balkanak elkarteari jasotako guztia entregatu zitzaion: 30 metro kubikoko bi kamioi, batez ere arropa eta jakiez beteak, baita medikamenduak eta higienarako gaiez ere.

Azpimarratzekoa da eskutan bildutako 200.000 pezeta. Kopuru hori C eta D bitaminak, umeentzako papilak eta botatzen ez diren painalak eta esne hautsetan erosteko erabili da.

Antolatzaileentzat guztiz hunkigarria izan da herritar guztien erantzuna, espero genuena baino askoz ere gehiago batu dugulako. Mila esker Arrasate.

**BOSNIARAKO BILKETAREN
ANTOLATZAILEAK**

**Edozein keja,
komentario,
burutazio dauka-
zula? Idatziguzu
gutuna eta gusto
handiz argitara-
tuko dugu. Idatzi
20 lerrotik gora
eta eman zure
izena, N.A.M. eta
telefonoa harre-
manetarako.**

Super BM

**SUPERMERKATUA
ARABA ETORBIDEA - ARRASATE**

**ELIKADURA / EDARIAK / TXERRI-HARATEGIA / FRUTA ETA
BARAZKIAK / IZOZTUAK / DROGERIA-LURRINDEGIA / TRESNAK**

Telebistako zein programa ikusten duzu?



Mariano Iveras
Jubilatua (87 urte)

Batez ere, goizeko ordubateetik aurrera botatzen duten pelikulak ikustea gustatzen zait.



Maria Jesus Etxebarria
Etxekoandrea (70 urte)

Detektibeen pelikulak ikustea gustatzen zait. Animalia eta nazioen historiari buruzko dokumentalak ere ikusten ditut.



Pedro Urreta
Zapatodoseko langilea

Gehienbat ETB ikusten dut, euskararazko katea eta baita gaztelerazkoa were. Batez ere informatiboak, eta noski, kirol programak ere bai.



Jose Antonio Mateos
Ikaslea (18 urte)

Batez ere kirol programak ikusten ditut eta albistegi batzuk ere bai.



Iñaki Atxa
Langabetua (27 urte)

Gehien dokumentalak gustatzen zaizkit, baina aspertuta nagoenean edozer gauza ikusten dut.



Maite Abetxuko
Etxekoandrea (58 urte)

Albistegiak ikusten ditut. Arratsaldetan pelikularen bat, baina telenobelak ez.



Rosa Calleja
Langilea (24 urte)

Ez dut telebistarik ikusten. Noizbaiten pizten dut, baina normalean ez.




Maite Hernandez
De Larrea
Langabetua (30 urte)

Albistegiak eta batez ere pelikulak.



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igoalatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitate (iberdrola) 12 01 62
 Gas 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 26
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
 Gaeuz: Azkoaga, Ferrerías.

Larunbata 27
 Egunez: S. Español, Iturriotz.
 Gaeuz: S. Español, Iturriotz.

Igandea 28
 Egunez: Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Corcuera, Musakola.

Astelehena 29
 Egunez: Irizar, Erguin.
 Gaeuz: Irizar, Erguin.

Asteartea 30
 Egunez: Amezua, Santa Marina.
 Gaeuz: Amezua, Santa Marina.

Asteazkena 1
 Egunez 22.00ak arte: Ruiz, Magdalena.
 Gaeuz: Estella, Bergara

Osteguna 2
 Egunez 22.00ak arte: Morales, San Andres.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

26 OSTIRALA

ZINEA

“En La Línea Del Fuego”. 7etan eta 10etan.

HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIAK

ARKOk antolatuta.

MENDIKO ASTEA 93

Gaia: Anapurna Hegoa. Hizlaria: Enri Lukas. Aretxabaletako Zaraia zineman, 7etan.

MUSIKA JAIALDIA

AEDren hamargarren urtemuga eta Arrasate Pressen bostgarrena. Musikariak: Mikel Markez, Anje Duhalde, Niko Etxart eta Lanperri eta Miliku eta sorpresak. Gaueko 10etan, Arrasateko kiroldegian. Prezioa, 800 PTA.



MUSIKA JAIALDIA

Ostiralean, AEDk eta ARKOk antolaturiko jaialdi mundiala izango da. Euskal Herriko hainbat kantari ezagunek abestuko dute: Mikel Markez, Anje Duhalde, Niko Etxart eta Lanperri eta Mikilu. Eh, hi! sorpresa izugarria ere izango da, beraz ez ezazu kontzertua galdu. Antolatzaileak, AED eta ARKO. Gaueko 10etan, Arrasateko Kiroldegian. 800 PTA.

27 LARUNBATA

ZINEA

“En La Línea Del Fuego”. 7,30etan eta 10etan.

HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIAK

ARKOk antolatuta.

MENDIKO ASTEA 93

Tirolina eta Umeentzako Jolasak. Aretxabaletan.

ADIBIDETZ EKINTZAK

Hies ekimenak antolatuta. Egurdiko 3,30etan Sebero eta Ferixalekuan, tirolina eta rapelak Besaideren laguntzaz. Arratsaldeko 5etan malabareak eta haur jolasak. Gauean, Rock Jaialdia.

KONTZERTUA

Eskola Politeknikoaren 50. urteurrenaren oroitzarretarako kontzertua. Goikobalu Abesbatzak eta Arrasate Musika-leko Orkestra Sinfonikoak parte hartuko dute. Amaia antzokian, gaueko 8etan.

ATZERATUEN ALDEKO JAIALDIA

Partaideak: akordeoilariak, Arrasateko Eskola Politeknikoaren Tuna, abeslariak, bertsolariak, eta Aretxabaletako Abesbatza. Aretxabaletako Zaraia zineman, gaueko 10etan. Jaialdi honetan, Loramendi Ikastolak Arantza Iza andereñoa omenduko du.

ROCK JAIALDIA

HIES ekimenak antolatuta, “Adibidez” ekintzen barruan. Partaideak: “Kojón Prieto y los Huajalotes”, “Los Reincidentes” eta “Ume Gaiztuak”. Musakolako kiroldegian, gaueko 10etan. Sarrera 1000 PTA

28 IGANDEA

ZINEA

“En La Línea Del Fuego”. 7,30etan eta 10etan.

ADIBIDETZ EKINTZAK

Hies Ekimenak antolatuta. Egurdiko 12etan Sebero Altuben mahai informatiboa. 12.30etan txontxongiloak, “El Tenderete” taldeaz. 12,30etan bertsolariak kallean zehar. Arratsaldeko 8etan Jai Zale tabernan “Cabaret” taldeaz, kafe teatroa.

JON ANTXIARI OMENALDIA

Murruxikok antolatuta. Goizeko 10etan partenoitik Urkulura irteera. 11etan oroimen gisa zuhaitz bat landatuko da Urkulun. Ordu 2etan bazkaria.

UDAZKEN KULTURALA ES-KORIATZAN

Goizeko 10,30etan, Musika Eskolako bandaren Kalejira. Goizeko 11etatik aurrera herriko plazan, perretxiko eta fosil erakusketa. 12etan Parrokian kontzertua. Herriko plazan Marrazki Lehiaketa.

29 ASTELEHENA**ZINEA**

"En La Línea Del Fuego". 7etan eta 9,30etan.

MIMOA

Peter Robertsen "Imintzo" obra. Goizeko 11etan Musakola ikastetxean. Arratsaldeko 3etan Erguin ikastetxean.

HITZALDIA

Gaia: Familia eta Drogak. Zer egin? Musakola auzoan, San Antolin ikastolan. Arratsaldeko 7etan. Lizarra elkarteak antolatuta.

HITZALDI-EZTABAIDA

Gaia: "Hiesa eta Emakumea". Hizlariak: Bizkaiko Hiesaren kontrako komiteko partaideak. Arrasateko Hies-Ekimenak antolatuta. Monterronen, 7etan.

ERAKUSKETA

Txomin Martinez de Albenizen eskulanean erakusketa. Monterrongo erakusketa aretoan. Ordutegia: egunero, 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

ERAKUSKETAK

Abenduaren 3 arte, HIESari buruzko mundu osoko kartel, triptiko eta beste materialen erakusketa. S. Frantziskoko kalistroetan. Azaroaren 28rarte lumazko idazketa lanen erakusketa, Monterrongo erakusketa aretoan. Azaroaren 28rarte Euskal Herriko soinu-tresnen erakusketa, Harresi aretoan. Azaroaren 27rarte Zerra pintore arabarraren lanak ikusgai, Gaztetxean.

**30 ASTEARTEA****ZINEA**

"En La Línea Del Fuego". 7etan eta 9,30etan.

MIMOA

Peter Robertsen "Imintzo" obra. Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 3etan San Viator ikastetxean.

UEUren IV. ARRASATEKO JARDUNALDIAK

AEDren X. Urteurrenaren barruan. Hitzaldia: euskararen egoera Arrasaten. Hizlaria: Jose M. Velez de Mendizabal. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan.

HITZALDIA

Gaia: Familia eta Drogak. Zer egin? San Andres auzoan, parrokiako lokaletan. Arratsaldeko 7etan. Lizarra elkarteak antolatuta.

ANTZERKIA

"Oihulari Klown" taldearen, "Todo Bajo Control" lana. Seberon, 6,30etan. Hies Ekimenak antolatuta.

1 ASTEAZKENA**MIMOA**

Peter Robertsen "Imintzo" obra. Goizeko 11etan La Merced ikastetxean. Arratsaldeko 3etan San Frantsisko Xabier ikastolan.

HIESaren EGUN INTERNAZIONALA

Ekintzak egun guztian zehar.

HITZALDIA

Gaia: Familia eta Drogak. Zer egin? Monterron kultur etxean. Arratsaldeko 7etan. Lizarra elkarteak antolatuta.

BILERA

Deba Bailara Bizi-Bizirik taldeak deituta. Maltzaga-Urbina autopistaren aurka. Bergara, kultur etxean 7,30etan.

2 OSTEGUNA**HITZALDIA**

Gaia: "Ecología Y Salud". Hizlaria: Xabier Arregi. Arratsaldeko 6,30etan, Eskoriatzako Kultur Etxean.

HITZALDI-EZTABAIDA

Gipuzkoako HIESaren Kontrako Elkartearen eskutik. Monterronen, 7etan.

HITZALDIA

Gaia: Deba garaiko hirugarren adinekoek dituzten, giza osasun beharrei buruzko ikerketa. Hizlaria: Ana I. Bujanda. Abaroan, arratsaldeko 4etan.

TRIKITIXA, BATZARRA ETA AFARIA

Abenduaren 10ean batzar nagusia egingo du Arrasateko Trikitixa Eskolak. Bilera ostera afaria ere antolatu da. Afarira trikitilari, panderojole, guraso, neba-arreba eta aiton-amonak daude gonbidatuta. Afariaren prezioa, 1500 PTAKoa da eta txartelak abenduaren 3a baino lehen Hiren erosi beharko dira.

V.LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETA

Aretxabaletan jai, bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte. Bi sailetan banatuko da lehiaketa: olerkiak eta narrazioa. Sail bakoitzean, lau maila bereiztuko dira: O.H.Oko 3-4 mailak, O.H.Oko 5-6 mailak, O.H.Oko 7-8 mailak eta 15-16 urtera bitartekoak. Lanak bidaltzeko epea abenduaren 22an bukatuko da. Sariak urtarrilaren 28an banatuko dira.

HIESAREN EGUN INTERNAZIONALA

Abenduaren 1ean. Goizeko 9etan etxalderuak eta 9,30etan erdikaldean eta Arrasateko sarreretan pankartak ipintzea. 11.30etan, Seberon mahai informatiboa. Arratsaldeko 4,30etan, jolasak eta margoketa libre. 6,30etan, giza kataia aterako da Seberotik. 7etan erraldoi eta kilikien konpartsa, Arrasateko gaiteroekin. Alde zaharrean Tunantes Del Nortekoen skketxak ikusgai 7etan. 8etan poteo herrikoia eta 8,30etan Tanbor Taldearen ekitaldia, Seberon sutea piztuko delarik. 9.30etan afaria.

“Ba al dago IGPetan errepide bat egitearen/ez egitearen egokitasunez eztabaidaitzerik? Ba dirudi ezetz!(...) Kontraesan hori gainditu ezik, IGPak guztiz biziaturik sortzen dira.(...) Baina oraindik okerrago da Deba Arroko biztanleontzat. Guretzat, Sodupe jaunak bota diguna mehatxu bat da: edo autopista edo ezer ez. Onartezina! (...) Eztabaida dezagun, beraz eztabaidatu beharreko guztia, baina hartarako haseko, gaia ongi finkatu behar da eta ondoren ezertxo ere lapurtu ez prozesuari, partehartzaileei etabarri, baina bildur naiz okerreko bidetik abiatu ez ote garen”.

Xabier Zubizarretak 93-11-14

Egunkaria

“(AEDko Gazte Mobidaz) Ez dakizue zenbat hitzegiten duten Arrasaten! (...) herriko gazteria pasibitatek aktibitatera bultzatu nahian, eta, bestalde, nolabaiteko alternatiba bat esakaini tabernazulo eta betiko kuadrilen dinamikari. (...) Aurretik antolaketa-esperientziarik izan ez duen gaztetxo taldea izateko, nahikoa ipurterreak dira arrasatear hauek. Izan ere, autoestima asko lantzen duten esparrua da, beraiek esaten duten bezala: ‘batuta indartsu garela konturatu gara’. (...) ‘la sekta pandereta’ deitzen dietela, juergista naturalak direlako. Honez gain, agentzia matrimonial bat ere badirela aitortzen dute, bikoteak ‘a tutuplé’ sortu baitira. Luzerako izan dadila erromantzea, bai bikoteena, eta bai euskararena”.

Kemen Urangak 1993-11-19

egin


“Jubilatzera doazen bikoiteei eskatuko nieke ‘jubilatatu bat etxean izatea, pasiloan koltxoi bat izatea bezala da’ esaten duen esatera ez dezatela euren egin; bestearen une sentimentala ulertzen jakin dezatela, eurentzat gauza batzuk aldatu egingo direla onar dezatela, eta azken batean, harremanen mundu horri aldaketa bat eman diezaiotela, horixe da eta azkenean, bizitza gertaera ‘jubiloso’ bihurtzen duena”.

Francisco Alvarezek azaroko

lanhida

Nola lortu du ‘Corazon de Encinak’ orain duen elkartea?

1 990ko udan, Extremadurako kultura geneukanok taldetxo bat osatu genuen. Talde-txo hartako gehienok, Extremaduran jaiotakoak ginen edo sustriak han geneuzkanak. Asmoa zera zen, ekintzen bidez gure kultura bizi eta jorrazteko aukera izatea. Garai hartan bagenuen ilusio bat, hain zuzen ere orain dugun elkartea eratzea. Beraz, hau lortu ahal izateko, lanari ekin genion. 1991an batzar orokorra egin genuen. Bertan, elkartea martxan jartzeko bazkide bakoitzak 100.000 PTA ordaindu behar zituela onartu zelarik.



Jesus Rodriguez
Corazon de Encina
elkarteko Presidentea

Ondoren, ordurarte lokalez lokal ibili ginenez txoko finkoa bilatzeko ordua bazela pentsatu genuen. Horrela, egun gure lokala dena erosi genuen. Lokalak 408 m² ditu eta honez gain 160 m²tako terraza ere bai. Jadanik, 150 bazkide ditu elkarteak eta martxa onean goazenez, seguruenik kopuru hau handitu egingo da. Izan ere, horregatik erosi genuen lokal handia, gertatu den bezela, jende dexente apuntatuko zela uste genuelako. Dudarik ez inbertsio handian sartu garela, baina guzti honetan sartu aurretik guztia ondo planifikatu genuen, beraz aurrera aterako gara.

Elkartea herritar guztientzat zabalik dago. Herriko nahiz Deba Garaiko edonor egin daiteke bazkide eta antolatzen ditugun ekintzetan edonork partehartu ahal izango du. Hori bai, gure elkarteak helburu konkretua du. Extremadurako kultura Euskal Herrian zabaltzea. Horregatik gure ekintzek asmo hori betearaztea izango dute helburutzat. Era berean, herriko beste taldeekin ere harremanak finkatu nahi genituzke.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Autokarabanak alokatzen dira!

METS
T A I L E R R A K


Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkoko piezak eta osagarriak.



Lagun Aro, Argia saridun

Lagun Aro aseguru etxeak irabazi du publizitate arloko aurtengo Argia saria. Argia aldizkariak urtero saritzen ditu komunikabideetako arlo desberdinetako euskarazko ekimen edo lanik interesgarrienak, eta aurten publizitate arloko saria eman dute lehenbiziko aldiz. Lagun Arok etxea aseguratze euskaraz egindako publizitateagatik lortu du saria. Sari banaketa joan den ostiralean izan zen Donostian. Gainerako arloetako sarituak hauek izan dira: prentsa idatzian, Antton Olariaga, Zakilixuten marrazkilaria; irratian, Laxaro Azkune, eta telebistan, Andoni Egañak aurkezten duen Balinda lehiaketa.



Hilerriari erasoa

San Kristobalگو hilerri berriak erasoa jasan du aste honetan. Bertan dagoeneko eraikitako panteoi gehienak, orain artean ehortzitako pertsona bakarrarena barne, apurtu egin zituzten joan den asteburuan. Kalteak nahiko nabarmenak dira, eta esangura berezia daukate kanposantu bat izatean. Hilerriko bulegoetan kristalak ere apurtu izan dituzte erasotzaileek, eta udaltzaingoak arreta eskatu du basakeria honen eragileak atzeman ahal izateko. Kanposantua azaroaren 1ean inauguratu zen, eta urtariletik aurrera ehorzketa guztiak bertan egiteko asmoa dauka Udalak.

Corazon de Encinaren egoitza berria

Corazon de Encina elkarteak bere lokal berria ireki zuen joan den larunbatean. Etxremadurako etorkinen Arrasateko elkarteak San Andres auzoko Escatu eraikuntzan daukate euren egoitza eder eta zabal berria. Inaugurazio ofiziala bi hilabete barru

izango da, baina ekainetik lokal barik zeudenez, Escatukoa irekitzea erabaki zuten. Larunbatetean izan zen irekiera, goizean autoritateekin egindako hamaiketako batekin, Arratsaldean, festa eta dantzalditxoan izan zuten, eta gauez 100 lagundik gora

bildu ziren afari batean.

Bi kamioi Bosniarako

Azken aste hauetan Bosniarako premiazko arropa eta gauzak biltzen bulego bat egon da irekita Arrasaten, Sebero Altube plazan. Azkenean, arrasatearron

elkartasunari esker bildutako guztiarekin, bi kamioi-kada bete zituzten igandean, eta SOS Balkanes erakundearen beste hainbat bilketarekin bat egin eta gero, elkartasun konboi bat antolatuko da errepidez, ahal bada, Sarajevora bertara iristeko. Antolatzaileek asko eskertu dute herritarren laguntza.

Diru-laguntzak Udalari

Aste honetako Gobernu Batzordean diru-laguntza batzuen berri eman zen. Adibidez, euskara sustatzeko Hitzarmenaren plangintzak 1,5 milioi PTA jaso du Jaurlaritzako HPINETik, eta Gazte sailak, 3,8 milioi Foru Aldunditik ume eta gazteen-tzako jarduerak bultzatzeko.

JAIOTZAK

- Lide Ansoategi Alonso. Azaroaren 8an.
- Julen Diaz de Antoñana Moto. 15ean.
- Maitane Isacelaya Salamanca. 16an.
- Lidia Grille Robledo. 18an.
- Danel Iborra Heriz. 19an.
- Aitor Barrena Arzamendi. 20an.
- Lide Errasti Muñoa. 21an.

HILDAKOAK

- Margarita Urrutia Arriola. Azaroaren 16an. 87 urte.



Electrozailuak

ETXERAKO AUKERA GUZTIAK

Iturriotz, 21 ARRASATE Tfnoa: 79 03 84






JOXEAN EIZMENDI *

Hitzarmenaren luzapena, zertarako?

1990eko martxoan, euskararen erabilera indartzeko hainbat entitateen arteko hitzarmena sinatu zen. Konpromezu publiko eta borondatezko hau hasiera batean 3 urterako sinatu zuten 38 entitatek.

Hitzarmenaren esperientzia martxan jartzerakoan ezarri ziren oinarriko 3 helburuen artean balantzea oso positibotzat jo daiteke.

1.— Hitzarmeneko entitateen arteko harremanak euskaraz burutzea: 3 hizkuntz auditoriatan neurtu ondoren, % 90 batean euskara hutsez.

2.— Hitzarmeneko entitateen kopurua handitzea: egun, 91 entitate dira hitzarmeneko partaide, bertan ikastetxeak, erakunde publikoak, aurrezki kutxak, talde politikoak, sindikatuak, enpresak, kultur taldeak, kirol taldeak... etabar agertzen direlarik.

3.— Hitzarmeneko entitatei aholkularitza tekniko eta linguistikoa eskaintzea: atal honi dagokionez, hainbat ikastaro antolatuta ditu hitzarmeneko aurreko teknikariak, enpresei eta entitateei eskainitako ehundaka itzulpen, zuzenketa, laguntza eta

ohar labur aipa daitezkeelarik.

Hitzarmenaren lehenengo atxekitze-ekitalditik 3 urteak bete zirelarik, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak berorren luzapena erabaki zuen beste 3 urterako, sinatzaile guztiek onartu zutelarik luzapen hori.

Hitzarmenaren lehenengo atxekitze-ekitalditik 3 urteak bete zirelarik, Hitzarmenaren jarraipen batzordeak berorren luzapena erabaki zuen beste 3 urterako, sinatzaile guztiek onartu zutelarik luzapen hori.

Hitzarmenaren lehenengo atxekitze-ekitalditik 3 urteak bete zirelarik, Hitzarmenaren jarraipen batzordeak berorren luzapena erabaki zuen beste 3 urterako, sinatzaile guztiek onartu zutelarik luzapen hori.

Gogora daitezke entitate sinatzaileak harturiko beste konpromezu batzu ere: hala nola, zuzendaritza batzordeetako aktak edo beraien arteko espediente osoak euskaraz burutzearenak, adibidez.

Bestalde, hitzarmeneko entitateek partehartze aktiboagoa izan dezaten, AED elkarteak arlo ezberdinen ordezkariekin osatutako lan-talde bat sortzea proposatu du hitzarmenari dinamika handiagoa emateko lehen aipaturiko puntu horien ha-

rian.

Hitzarmenaren iharduera sakontzeko hauek dira egitasmo berrian aurrakusten diren atalak labor-labor aipaturik:

— Entitate bakoitzaren barne eta kanpo-harremanetan euskararen erabilpena areagotzea, erakunde bakoitzean hizkuntz plangintza txikiak eginez.

— Finantz erakundeekiko harremanetan euskara erabil-
tzea.

— Euskal Herriko erakunde publikoekiko harremanetan euskara erabiltzea.

— Errotulazioan euskara erabiltzea.

Hitzarmenaren sakondu beharra begi bistakoa bada ere, ezin dugu ahaztu hizkuntz egoera ezberdinetako entitateek osatzen dutela bera. Hori dela eta, sakontze prozesu horrek mailakatu izan beharko du, bakoitzaren egoera zein baliabide edota ahalmenen arabera, emaitza mailakatu zehatzak eskatuko zaizkiolarik entitate bakoitzari.

Bukatzeko, hitzarmenetik kanpo dauden hainbat entitate ere aholku eta laguntza tekniko eskainiko zaie, euskararen erabilera ahalik eta arlo gehienetara zabaltzeko.

Ea ba, euskalgintzako eragile eta teknikari asko Arrasateri begira dauden une honetan (lan-munduan euskararen sarre-
ra bat lortu delako hitzarmenaren bidez, besteak beste eta herri-komunikabideak bezalako beste fenomeno batzu ahaztu nahi gabe) dinamika eta indar berri bat ematen diogun euskararen Hitzarmenari Arrasaten.

* EUSKARA-TEKNIKARI
BERRIA

USTEAK USTE

ARGIAK

Gabonak hurbil direla eta, kritikagarri iruditzen zaidan hainbat punturen artean, herrian argiak jartzearen inguruan gogoeta batzuk ekarri nahi nituzke Usteak Uste honetara. Nik ez dakit Elizak zein iritzi duen honetaz, baina dakidanez, funtsean, Jesusen jaiotza ospatzeko jaiak dira, eta alde erlijioso hartzen badugu, ez diot, benetan, zentzurik ikusten argiak jartzeari. Bestalde Eliza pobreekin badago, sarri asko entzun izan dudana moduan, horrelako itxurakerietan diru kopuru bat gastatzeak ez dut uste Jesusen dosktrinarekin zer ikusirik duenik, are gutxiago beste hainbat premia dagoenean herrian bertan, azken garai hauetako krisi ekonomi-koak larriagotu dituelarik. Nire ustez katoliko fededunen artean badaude, edo egon beharko lirateke, Jesusen jaiotzak ematen dien poztasuna azaltzeko beste mila era. Hori alde batetik. Baina bestalde, herri honetan batzuk agnostiko, beste batzuk ateo, eta baten batzuk beste sinismenen bat izango dutela pentsatzen dut, eta hau kontuan izanik, ez deritzot bidezko diru publikoa erlijio edo doktrina bakar baten alde gastatzeari. Bukatzeko, eta esan bezala, nire ustez oso ondo ospa daitezke jai hauek euren alde erlijiosotik zein alde ludikotik, argiak jartzen dirurik gastatu beharrik gabe.

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

Umeentzako moda



Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

MENDI Taberna


Mendi da zure etxea

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA



Azaroaren 3an gertatu zen istripua, labe batetik burdina urtua isuri zenean.

Ederlaneko sutean isurketa toxikoa gertatu zen

Joan den azaroaren 3an Fagor Ederlan enpresan izandako sutean isurketa toxikoa gertatu zen. Isurketaren ondorioz, garbiketa eta kontrol neurriak hartu dituzte Fagorreko arduradunek, Diputazioarekin eta Jaurlaritzarekin bat, eta egindako neurketek "ez dute informe negatiborik ematen", Fagorreko prentsa bulegoak aditzera eman duenez. Dagoeneko, labeetako sekzioa martxan dago, kutsadura maila arriskutsurik ez dagoen seinale.

Labeetan gertatutako istripuaren ondorioz, transformadore batzuk erre ziren eta gai toxiko bat isuri zen: Pirolenoa. Gai hori erretzean, bifenilo polikloratuak (PCB direlakoak) sortzen dira. PCB hauek gai toxikoak dira, Greenpeace-k dioenez. Erakunde ekologistaren datuen arabera, izaki bizidunen sistemetan akumulatu egiten dira, sistema inmunitarioan eta erreproduktzioan eragina dute, batez ere epe luzera. Gaur egun PCBak debekatuta daude Europako Komu-

nitatean, eta ez da horrelako transformadorik egiten, baina oraindik sistema zaharretan gordetzen da toxikoa, eta bere erabilera araututa dago.

Sutea kontrolatu zuten suhiltzaileei, istripura joan ziren ertzainei, eta Ederlaneko mantenu saileko langileei odol-analisiak eta osasun kontrolak egin dizkiete istripua gertatu zenetik. Kontrol horiek urtebetez ere luza daitezke, baina "prebisio neurri arrunta" dira, Fagorren esanetan. Analisisiek ez dute datu ezkorrik eman oraingoz, eta lana normaltasunez egiten da Ederlanen.

Azaroaren 3ko istripuak kalte handiak egin zituen lantegian, baina dagoeneko produktzioa errekuperatzen ari dira. Burdina urtua isuri zenean gertatu zen istripua, eta ondorioz, bi labe handi, beste lau txiki eta lantegiko hainbat instalazio erreta edo kalte-tuta geratu ziren. Ederlanek automoziorako tresnak egiten ditu, eta automobil-egile handienak dira bere bezeroak.

Cerrajerakoen protesta

UCEM taldeko bi enpresetako langileak berriro hasi dira protestaka. Cerrajera eta Transformados Metalicos lantegietako langileek kontzentrazioak egingo dituzte aurrerantzean ostegun arratsaldeetan, Portaloian, beren lanpostuen jarraipenaren defentsan. Protesta LAB, ESK eta CCOO deitzen dute, eta ELA ez du parte hartzen.

Arrasate Musikalen aurrekontuak

Arrasate Musikal elkarteak bere urteko asanblada izan zuen joan den astean. Batzarrean, datorren urterako aurrekontuak onartu ziren: 78 milioi PTA guztira. Gastu gehienak soldatetan joango dira, eta sarerra nagusiak Udalaren diru-laguntza (38,4 milioi PTA) eta ikasleen kuotak (29,6 milioi) izango dira. Bestetik, bilera berean konfirmatu zuten, Ivo Pogorelich pianojole kroaziarrak berriro joko du Arrasaten, otsailaren 5ean.

Umeentzako jolastokiak

Labanderak, txintxaunak eta umeentzako horrelako jolastokiak erosteko 1,9 milioi PTA gastatuko ditu Udalak. Jolasguneok Jose Luis Iñarra plazan, Makatzenan eta Uribe auzoan jarriko dituzte.



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

Arrasateko 102 gazte soldadutzarako zozketan

Joan den astean egin-dako soldadutzarako zozketan Arrasateko 102 gazte zozketatu zituzten militarren ordenagailuek. Zozketa egunean, greba egin zuten herriko ikastetxe batzuetan, eta bi manifestazio ere egin zituzten dozenaka gaztek. Zozketan, dagoeneko zerbait alegatu dutenak eta objektatzeko bidean daudenak sartu dituzte, eta beraz, 100 baino nahikoa gutxiago izango dira, seguruenik, soldadutzara joango direnak.

Dagoeneko gazteen informazio bulegoan jaso dituzte eragozteko edo intsumiso egiteko informazio eskaerak zozketatutako zenbait gazterengandik. Adibidez, soldadutza Gasteizen eta urtarrilean egitea eskatu zuen gazte bati, Ceutan eta abuztuan egokitu zaio, eta objetatzea erabaki du.



Gazte kontzentrazioa intsumisioaren aldeko manifestazio baten aurretik.

Bestetik, gazteen informazio bulegoak bere ordutegia zabaldu egin du. Goizez, 11etatik 1etara, eta arratsaldez 5etatik 8etara zabalduko dute (lehen baino ordubete gehiago). Lehen ez bezala, ostiral arratsaldeetan ere irekita egongo da. Bulegoan, teknikari berri bat ere badago lanean orain: Esther Balanzategi.

Gabonetako argiak, bai

Azkenean, Arrasateko erdiguneak jaietako kale-argiak izango ditu aurtengo Gabonetan, iazkoetan bezala. Gobernu Batzordeak argiak jartzeko kontratua adjudikatzea erabaki zuen, 3 milioi PTAtan. Sei zinegotzi daude Gobernu batzordean eta EAJ eta EAKo lauek onartu zuten adjudikazioa. EAKo zinegotziek botua aldatu egin zuten, gaia Gobernu Batzordean ukitu zen azken alditik. HBko biek aurka botatu zuten. Iturriotz, Erdiko-Kale eta Maala kaleetan bakarrik jarriko dituzte argiak. Auzi hau polemika sortzaile izan da udaletxean, aurrekontuetan gastua egitea onartu zenetik, batez ere EAJ eta HBren jarrera kontrajarriengatik.

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA
Legarre pabiloia z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE


DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Arartekoari eskaera egin diote baserrietako posta dela eta

Arrasateko alkateak eskaera bat bideratu dio Juan San Martini, Euskal Autonomi Elkarteko Arartekoari, baserrietako postaren arazoan esku har dezan. Duela hiru asteko ARRASATE PRESSEN genion bezala, Arrasateko baserrietara ez da posta iristen, eta baserritarrek eta auzo-alkateek Correos-i aurkeztutako kexuek ez dute eraginik izan. Hori dela eta, udaleko auzo batzordetik, areago joatea erabaki dute, Correos-eko Arrasateko eta Gipuzkoako arduradunekin ez baitute ezer lortu.

Correos-ek adierazi duenez, auzia 1995.etik aurrera ukitzeo intentzioa omen daukate. Eta, gainera, eurek



Correos-ek 95etik aurrera konpondu nahi omen du arazoa.

planteatutako konponbide posiblea ez litzateke posta baserrietara eramatea, buzoi edo kutxatila kolektiboak jartzea baizik. Orain, Udalako baserritarrek halakoa daukate Erguinen, baina ez daude gustora, erraz apurtzen dituztelako buzoiak. Bedoñakoentzat buzoiak Lanan jartzea proposatzen du Correos-ek, eta horrekin ere ez daude ados baserritarrek. Etxeetara bertara ez bada, sikira auzoraino eroatea kartak, horixe da eskatzen dutena.

Arartekoari berak konponbiderik bultza ote dezakeen galdetzen zaio alkatezako eskaeran, eta auzia bere esku ez badago, ea zein bideetik jo dezaket.

MIC-KIUB

HAMAR URTE KONTSUMITZAILEEN ZERBITZUAN

NON? Merkatu Plazan aurkituko gaituzu

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa



ARRASATEKO UDALA



Joan zen larunbatean futbolin txapelketa egin zen Biona tabernan. Txapelketara 40 partaide

hurbildu ziren. Sari guztiak, berriz, Bergarara joan ziren. Itxura denez primerako jokalariaik daude Bergaran.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza sailak antolatutako duen "Sustatu 93" lehiaketako bi sari Arrasatera heldu dira. Kazetaritza saileko 3. saria **ARKOri eman diote, ATB eta ARRASATE Pressen** bitartez zerbitzu sozialei buruzko kontzientziatzaioan egindako lanagatik eman duen informazioagatik. Ikus entzuteko sailean lehen saria **Oscar Epelderi** eman diote, ETBrako egin zuen "zaharrak izatea" erreportaiarengatik.

Udan Kanboko ikastolan AEDko hainbat gaztek eman zituzten lan orduak eskertu guran, arrasatearrak bazkari batetara gonbidatu zituzten ikastola honetakoek. Joan zen igandean, 53 lagun joan ziren Ezpeletara bazkari gozoa jan eta lagun berriak egitera. Guztira 300 pertsona bildu omen ziren, giro aparta, beraz, Ezpeletan!



comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Axeri baserriak agur esan zien arrasatear guztiei eta baita ere bertan bizi nahiz jaio zirenei ere. Argazkian ageri direnak Alvaro Arregi eta Maite Garzia dira. Alvaro, alkate izandakoa, ber-

tan jaio eta bizi izan zen. Aldamenean ageri dena, Alvaroaren familiartekoa da. Maite, etxe honetan jaio zen azkena izan zen. Guztiek pena handiz esan zioten agur baserriari.

Pasa den asteko ostegun goizeko 5etan, lapurreta saioa gertatu zen Iturriotz kaleko etxebizitza batean. Lapurrak Zerkaostetako andamaio batzuetatik igo zuen bigarren pisura, eta sartu egin zen. Etxean jendea zegoen, eta jaiki zirenean, lapurrak aurre egin zien labain eta burdina batekin. Hala ere, etxez konfunditu egin zela esan omen zien, eta garrantziko ezer barik alde egin zuten. Lapurra suelto dabil oraindik.

FOTO-IMAGEN



Aitor Zubia eta Marian Lopez De La Calle, Bolibarren ezkondu ziren urriaren 10ean. Ezkontza bidaiari Kanariar irletara joan ziren. Zorionak!

IZEN PROPIOAK

● **Deunoro Otero Uribaren**, 34 urte, udaletxeko prebentzio eta gizarteratze teknikaria izango da aurrerantzean. Deunoro arrasatearra da eta psikologian lizentziatua. Orain arte drogomenpekotasun teknikaria izan da Udaletxean bertan.

● **Jose Luis Eraña**, 23 urte, udal kirol teknikaria izango da. Jose Luis atxabaltarra da eta soin hezkuntza ikasi zuen. Fernando Aguriondoren ordezkari hasi da lanean.

● **Lagun Aro aseguru etxeari** eman diote aurtengo Argia saria. Lagun Arori euskaraz egindako publizitateagatik eman diote saria. Publizitate arloko saria aurten eman dute lehendabizikoz.

lurrindegia
perfumeria

ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulua
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Onduline

URALITA


TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

Arrasaten,
azaroaren 26an eta 27an

Herri
Komunikabideei
Buruzko II.
Jardunaldiak



ARRASATE AITZINDARI

- * **1988.** Abenduaren 2an ARRASATE PRESS lehenengoko aldiz kaleratu zenean, aro berri bat ireki zen Euskal Herriko herri komunikabideen historian.
- * **1990.** Otsailaren 13an ARRASATE TELEBISTA arrasatearron etxeetara lehen aldiz sartu zenean ere nahitaezko erreferentzi puntu bilakatu zen Euskal Herrian.
- * **1991.** Azaroan PRENTSA LOKALARI BURUZKO I. JARDUNALDIAK antolatu ziren Arrasaten.
- * **1992.** ARRASATE KOMUNIKABIDEAK (ARKO), Euskal Herriko lehen herri multimedia sortu zen. Aurrerapauso handia herri komunikabideen garapenean.
- * **1993.** Azaroaren 26an eta 27an HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIAK eratu dira.

URTE ZIRRARAGARRIAK IZAN DIRA DENONTZAT, BAITA ARRASATEKO UDALARENTZAT ERE, ZEREN EKIMEN GUZTI HAUEK GURE LAGUNTZA IZAN BAITUTE HASIERA HASIERATIK.

ESKERRIK ASKO ESPERIENTZIA HAU ERAIKITZEN LAGUNDU DUZUEN GUZTIEI ETA GURE DESIORIK ONENAK **HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO II. JARDUNALDIEI.**

EUSKARA BATZORDEA



ARRASATEKO UDALA

HERRI KOMUNIKABIDEEKIN

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Lehen fasearen ekuadorrera hurbilduz

Asteburu honetan Zaldibarko txapelketako bederatzigarren jardunaldia jokatuko da, eta lehenbiziko fasearen ekuadorra gaindituko dugu horrela. Datorren asteko kronikan jakingo dugu, beraz, zeintzuk diren "neguko txapeldunak". Ez dirudi, dena den, "txapel probisional" horietan ezusteko handirik gertatuko denik. Zaldibarko lau taldeetako sailkapenak 1. mailako nahaspila baino nahiko argiago daude, nahiz eta par-

tidu gutxiago jokatu diren. 1. mailan, dakizuen bezala, sei talde daude parra lidergoan, baina ez da horrelakorik gertatzen Zaldibarren. Ez hori bakarrik: lehen postuetan ari direnak, faboritotzat markatu genituenak dira. Aste honetan, bestetik, ez daukagu inorentzako zigorrik iragarri beharrik. Formaltxoago ibili dira taldeak, baina hala ere, Koak Laitekoek abisu bat jaso dute, arbitroa larregi kritikatzearatik.



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66

Garaiko perretxikoak urte
guztian zehar!!

RUTH
GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	8	8	0	0	58	9	16
TRIKITI	8	8	0	0	40	8	16
ARLUTZ	8	6	1	1	34	12	13
ANBOTOSTE KT	8	6	1	1	25	9	13
BERANGO SUKAL.	8	6	0	2	30	13	12
JEY JULIWER	8	5	2	1	28	14	12
ZOTZ	8	6	0	2	31	28	12
SOKOAKOAK	8	5	0	3	31	28	10
UGLYS TXINATO	8	3	2	3	24	24	8
WHISKERIA LINDE	8	4	0	4	19	25	8
KOXXAS	8	3	1	4	23	22	7
BIZKORRAK AVE.T.	8	2	2	4	19	27	6
ALLA KUIDAUS	8	3	0	5	20	37	6
AUF DEM KOFFER	8	2	0	6	15	31	4
BAYERN LENITZ	8	2	0	6	11	31	4
RESAKAS	8	1	1	6	19	34	3
IKATZ	8	1	1	6	20	44	3
FRAGUEL GOL	8	1	1	6	12	22	3
ETXE MOBILIARIO	8	1	0	7	17	37	2
EUSKAL INDARRA	8	1	0	7	17	38	2

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI BILI	8	8	0	0	51	18	16
DANOK LAGUN	8	4	4	0	20	12	12
ZULOAK	8	5	2	1	28	18	12
ARR. KIROLAK	8	6	0	2	30	20	12
LEINTZ GARAGAR.	8	5	1	2	40	15	11
IRATI STS	8	5	1	2	36	18	11
ALPEN KRAUSSER	8	5	1	2	39	43	11
BUKANAK	8	5	0	3	35	17	10
BETRAYER	8	4	1	3	32	26	9
TRONKOTEAK	8	4	1	3	25	26	9
GANBELAS	8	4	0	4	29	27	8
NOTXINGAN FLO.	8	2	2	4	25	29	6
OJO AVISORE	8	2	2	4	31	37	6
EXC. LETE	8	1	4	3	20	28	6
DIEGO ANTONIO	8	2	1	5	25	29	5
KOPYPREST	8	2	1	5	22	31	5
FANCY BOIS	8	1	2	5	21	33	4
OOOLE	8	2	0	6	16	35	4
MONTERREY Z.B.	8	1	1	6	22	34	3
ATXANTA KE TE...	8	0	0	8	13	64	0

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	8	7	1	0	48	9	15
LOS HEREDIA	8	7	0	1	33	14	14
ARR. KRISTALDEGIA	8	5	2	1	33	18	12
NABARROS	8	5	1	2	22	12	11
MIKELOS	8	5	1	2	29	17	11
PEPELUS	8	4	1	3	36	21	9
KAKAJAURI	8	3	3	2	22	17	9
ADELAIDA HAIZEA	8	3	3	2	20	19	9
TXOKO TABERNA	8	4	1	3	17	17	9
KIRTEN TROPEL	8	3	2	3	21	20	8
SIBILIUS ROVER	8	4	0	4	16	16	8
MOTZ	8	3	1	4	25	23	7
LOS DALTON	8	2	2	4	32	35	6
MZK GANBELAS	8	2	2	4	23	26	6
BORROCKN ROLL	8	3	0	5	20	39	6
HIREI	8	2	2	4	24	31	6
FOTO IMAGEN	8	1	3	4	20	28	5
LEYA	8	2	1	5	19	48	5
POTROSORRI	8	2	0	6	12	21	4
CORINTO TABERNA	8	0	0	8	16	57	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC SURCOS	8	8	0	0	44	14	16
ZULUS	8	6	2	0	56	25	14
TOVARITX	8	6	1	1	29	17	13
CARBUROS	8	4	4	0	32	13	12
POTROAK LORAT.	8	5	2	1	37	21	12
TUTTIFRUTI	8	5	2	1	41	25	12
KRISKIBALDA	8	5	1	2	32	18	11
LASO ARREGI	8	5	1	2	31	18	11
REVOLUTION ROCK	8	5	0	3	26	16	10
NUEVO TABERNA	8	4	1	3	23	18	9
FRANCISCANERR	8	4	0	4	34	29	8
LOS DIMY	8	1	4	3	21	23	6
SOLANO 7 MARES	8	2	2	4	22	44	6
GURE LEKU	8	2	1	5	23	33	5
MACCABI DE LEV.	8	2	1	5	19	28	5
BODISCA	8	2	1	5	17	28	5
ILUNA TABERNA	8	1	1	6	19	50	3
KOAK LAIT	8	1	0	7	21	42	2
ELISABETH	8	0	0	8	17	51	0
EZKINAKO HONTZAK	8	0	0	8	14	45	0

SEAT Udalaiz, S. A.

Audi

VW

Bigarren eskuko ibilgailuak 18 hilabeterako garantiaz

Musakola auzoa, z/g Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atekak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa berria: Kanpatorpea, 2 (Parrokia ondoan) ETORRI IKUSTERAI!

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

M

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria
Arrisku gerentea

Boulevard, 11 5º-A Tfnoa: 43 04 14 Fax: 43 11 01 20.003 DONOSTIA

S.Z.O. F-95 erregistro Zka. Erdiko kale, 4 Behea Tfnoa-Fax: 77 13 09 20.500 ARRASATE



Aste honetarako partidu bat nabarmenduko dugu: Los Dalton - Fosforos derbia. Zergatik derbia? bi taldeetako partaideak koadrila berekoak direlako. Beste partidu interesgarri batzuk: Anbotoste KT - Suministros Ugarte, AC Surcos - Tovarixtx, eta Bukanak - Irati STS.

BELARRIRA

◆ **ATBketan programan.** Zaldibarko antolatzaileen talde batek Arrasate Telebistako ATBketan lehiaketako programa bat grabatu du, aurkari gisa Extremadurako etorkinen Corazon de Encina taldeko gazte batzuk zeuzkatela. Zaldibartik parte hartu zutenak Unai Diaz (Sokoakoak taldekoa), Jon Onandia (Notxingan Florest), Mikel Azkarate (Ganbelas) eta Haritz Azkarraga (MZK Ganbelas) izan dira. Programa enlatatuta geratu da eta ez da emititu oraindik, eta ez dizuegu, beraz, emaitza aurreratuko.

◆ **Ordezkatzeak nola egin.** Futbito txapelketako arauetara errepaso eginez, joan den astean alboko sakeak aipatzen genituen; gogora dezagun oraingo honetan nola egin behar diren partiduko jokalaririk ordezkapenak. Beti jokatzen ari den porteriaren atzetik egin behar da, ez du balio kontrarioaren porteriaren atzetik irteteak, horrek abantaila ekarriko lukeelako eraso momentuetan. Araua haustea faltarekin zigortzen da.

EMAITZAK

A TALDEA

Etxe Mobiliario 2 - WWiskeria Linde 4
Berango Sukaldeak 5 - Fraguol Gol 2
Auf dem Koffer 2 - Jey Juliwier 3
Anbotoste KT 4 - Resakas 1
Alla Kuidaus 1 - Suministros Ugarte 13
Arlutz 1 - Uglys Txinato 1
Bayern Lenitz 0 - Zotz 3
Bizkorak Avenida Taberna 0 - Trikiti 2
Euskal Indarra 2 - Sokoakoak 5
Ikatz 2 - Koxkas 4

B TALDEA

Diego Antonio 0 - Tronkoteak 1
Bukanak 3 - Fancy Bois 0
Atxanta ke te merece 1 - Irati STS 8
Argi Ibili 2 - Leintz Garagardotegia 1
Alpen Krausser 6 - Notxingan Florest 5
Arrasate Kirolak 8 - Ooole 2
Betrayer 2 - Zuloak 0
Danok Lagun 4 - Ojo Avisore 2
Escavaciones Lete 5 - Monterrey Zubi Bel 0
Ganbelas 3 - Kopyprest 1

C TALDEA

Hirei 1 - Potrosorri 3
Fosforos 6 - Kirten Tropel 2
Txoko Taberna 4 - Los Dalton 0
Arrasate Kristaldegia 1 - Mikelos 2
Adelaida Haizea 3 - MZK Ganbelas 2
Corinto Taberna 2 - Pepelus 6
Borrokn Roll 1 - Sibilius Rover 2
Foto Imagen 1 - Nabarros 1
Kakajauri 3 - Motz 3
Leya 0 - Los Heredia 11

D TALDEA

Franciscanerr 4 - Tutifrutu 7
Elisabeth 2 - Kriskibalda 5
Bodisca 2 - Laso Arregi 3
Iluna Taberna 1 - Maccabi de Levantar 3
AC Surcos 1 - Revolution Rock 0
Nuevo Taberna 0 - Tovarixtx 3
Carburos 1 - Zulus 1
Ezkiñako Hontzak 2 - Solano 7 Mares 4
Gure Leku 2 - Potroak Lorategi 3
Koak Lait 2 - Los Dimy 6

Etxeko **ONGI ETORRI BERRIRO!!** Abenduaren 3an
janari zuen zain
bereziak gaude 7etatik
9ra
URRIN INAUGURAZIOA!!
EDARITEGIA
Uribarri Etorbidea, 22 Tfnoa: 79 95 24 ARRASATE

 **EGVZKIGRAF**
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 27

Zaldibar

- 08.50 Auf dem Koffer - Resakas
- 10.00 Kakajauri - Los Heredia
- 11.00 Franciscanerr - Kriskibalda
- 12.00 Koak lait - Tuttifrutti
- 13.00 Argi Ibili - Notxingan Florest
- 14.00 Alla Kuidaus - Uglys Txinato
- 15.00 Arrasate Kristaldegia - MZK Ganbelas
- 16.00 Bayern Lenitz - Trikiti
- 17.00 Iluna Taberna - Revolution Rock
- 18.00 Excavaciones Lete - Kopyprest
- 19.00 Fosforos - Los Dalton

Iturripe A

- 10.00 Hirei - Kirten Tropel
- 11.00 Anbotoste KT - Suministros Ugarte
- 12.00 Betrayer - Ojo Avisore
- 13.00 Foto Imagen - Motz
- 15.00 Bodisca - Maccabi de Levantar
- 16.00 Arlutz - Zotz
- 17.00 Txoko Taberna - Mikelos
- 18.00 Diego Antonio - Fancy Bois

Iturripe B

- 10.00 Borrokn Roll - Nabarros
- 11.00 Etxe Mobilario - Fragucl Gol
- 12.00 Euskal Indarra - Koxkas
- 13.00 Alpen Krausser - Ooole
- 15.00 Atxanta ke te merece - Lenitz Garagardotegia
- 16.00 Elisabeth - Laso Arregi
- 17.00 Berango Sukaldeak - Jey Juliwer
- 18.00 Corinto Taberna - Sibilius Rover

Igandea 28

Zaldibar

- 08.50 AC Surcos - Tovarixtx
- 10.00 Ganbelas - Tronkoteak
- 11.00 Bizkorak Avenida Taberna - Sokoakoak
- 12.00 Arrasate Kiroiak - Zuloak
- 13.00 Adelaida Haizea - Pepelus

Iturripe A

- 10.00 Leya - Potrosorri
- 12.00 Nuevo Taberna - Zulus
- 13.00 Ikatz - Whiskeria Linde

Iturripe B

- 10.00 Bukanak - Irati STS
- 11.00 Carbueros - Solano 7 Mares
- 12.00 Ezkiñako Hontzak - Potroak Lorategi
- 13.00 Gure Leku - Los Dimy



Brito Arceo eta baloiak galtzeko ohitura

Zenbat eta bronka gehiago, zigor eta polemika gehiago, orduan eta hobeto kazetariontzat. Horregatik, penaz esan behar dugu oraingo honetan, azken asteetako ohitura hautsi egin dela asteburu honetan eta ez diotela zigorrik ezarri inongo talderi. Hori bai, Koak Lait taldeak abisu bat jaso du aste honetan. Eskerrak, ez diren guztiak ondo portatzen.

Abisua arbitroaren kontra esan zituzten astakeriengatik jaso dute Koak Lait-ekoek. Nonbait, ez zitzairen gustoko arbitrajea egokitu, eta protestaka hasi eta ez omen ziren isildu. Esandako "astakerien" artean, arbitro gaisoari "Brito Arceo!" ere oihukatu zio-

ten, 1. mailako arbitro kaskarrenarekin gonbaratuz txistujole gaisoa. Dena den, antolatzaileek "arbitroarenganako eraso" horrenbestekoa ez zela izan erabaki dute, eta oraingoz abisu batekin konformatu dira. Hurrengoan zorrotzago jokatuko dute.

Bestetik, asteburu honetan beste hiru baloi galdu dira. Antolakuntza nahiko kezkatuta dago, esferikoak ez baitira merkeak, eta dexente ari dira galtzen. Horregatik, ardura apur bat hartzeko eskatzen diete taldeei, izan ere, Zaldibarko arauk esaten dutenez, baloien bila joatearen ardura partidu bakoitzeko ordezkoko jokalariena da.



GRONDO

eletrizitate

- * Elektragaiak
- * Argiztapena
- * Instalazioak
- * Bobinaketak
- * Automatismoa
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76

ARRASATE

● **Karlos Argiñano**

Arriortua baino ospetsuago

Norbaitek aurkezpenik behar ez badu, norbait hori Karlos Argiñano da. Arrasaten izan zen berriki, ATBrako Bakarka programako saio bat grabatzen, eta elkarrizketa-zeko aukera izan genuen.

— Nola zaizu posible alde guztietan aldi berean egotea?

— Alde guztietan ez nebilek. Toki askotan, baina guztietan ez. Toki askotan bai, eta gustora ibiltzen naizen bitartean, makina bat tokitan egongo nauk.

— Jatetxea ondo atenditzen duzu?

— Jatetxean 16 sukaldari zeudek. Hemengo alkateak alde egiten duenean, pentsatzen diat hemengo gauzak nahiko fundamentorekin utzita egongo direla. Nik neure etxea fundamentoz zeukat, akaso ni ez, baina fundamentozko jendea nire inguruan bai. Nire etxea oso ondo zainduta zegok, eta horregatik zeukat posibilitatea beste gauza batzuk prestatzeko.

— Admiradore ugari daukazu. Jasutzen duzu gutunik euskaraz?

— Euskaraz ere bai, baina ez asko. Badakik, gu ez garela oso zaleak kartak idazten. Normalean, besteari falloak

bilatzen eta horrela bai, baina kalean txikitoak edaten ari garen bitartean. Edozeinen gainean gaizki hitz egitea, hori erreza duk. Karta bat idaztea zailagoa duk: orria hartu, boligrafoa, sobrea, selloa, idatzi, korreosera bialdu, hori kostatzen zaiguk.

— Zer da zailagoa, telebista ala sukaldaritza?


— Niretzat sukaldaritza zailago. Telebista niretzat nahiko erreza izan duk. Badakit jende askok esaten duela, joe, zaila dala, erre egiten duela. Nik esaten diat erretzen duela ez egiteak. Egiteak ez dik erretzen.

— Perrejilak balio izan du inoiz postrerako?

— Ez, ezin da. Ez dago postrerik perrejilarekin. Baina hagineko mina kentzeko balio du.

— Ehiza bai ala ez?

— Ehiza bai. Gure zaharrrak, gure aitonak eta berraitonak ehizan ibili hintuan, eta guk, zer egin behar diagu? utzi egin behar diagu? Baten batek zaindu beharko dik historia. Ni ez negok ehizaren kontra, bestela egongo nituan arrantzaren kontra eta makina bat gauzaren kontra. Nik esaten diat egiten dugula arbolak moztu eta ez aldatu, eta hori ez dela horrela: arbolak



moztu, eta aldatu, zaindu. Gauzak zaintze ez baditugu... Jende askok bere familia zainitzen ez badu, nola zainduko du mendia ala erreka? Edo zakurra zaintzen duk eta igoyal semea ez.

— Harroegiak ez gara euskaldunok gure sukaldaritza dela eta?

— Bai, batez ere gipuzkoarrak. Hori ez diat nik esaten, hori estatu mailan esaten zidatek niri: hi, gipuzkoarrak la hostia dituk, etortzen dituk eta esaten ditek, hau nola prestatu duzue, ba hola eta hola, ba guk hala, esplikazioak ematen gipuzkoarrak. Makina bat bider amorratzekoak dituk gipuzkoarrak.

— Light modaren kon-

trakoa izango zara...

— Nik, light, batere ez. Zerbeza bat nahi baldin badut, zerbeza hartuko diat, eta bestela ura hartuko diat.

— Lopez de Arriortua zu baino ospetsuago bihurtu zaitzugu.

— Horrekin harrিতa negok. Nahi ditek, baina kostatuko zaiok ni baino famosoago. Ikusiko nitek, gustora hartuko nian ni baino famatuagoa egiten bada, eta bide onez egiten bada. Baina ez zekiat, hori hemen azaldu duk perretxiko bat bezala. Ni 43 urtetan ez nauk mugitu hemendik, egunero nebilek borrokan eta hori oraindik ez duk etorri eta esaten ditek gure soluzio guztiak emango dituela. Harritzekoa.

— Pilota munduan baduzu papeltxoa.

— Papeltxoa ez, ehun pertsona zeuzkagu nominan. Asegarce, enpresa berria, enpresa alai eta euskal pilotaren alde nahiko egingo duen enpresa dela uste diat.

● **“Ez dago postrerik egiterik perrejilarekin. Baina hagineko mina kentzeko balio du.”**

Ezkondu eta Arrasatera

Maria Agirre

Ondoko baserriko alabarekin ezkontzearen kontuak aspaldi bukatu ziren. Zenbait arrasatearrek, kanpoan aurkitu du bere bikotea. Senar arrasatearra duten neska atzerritar batzuekin egon gara, herriari buruz zer pentsatzen duten jakiteko eta arrasatearrei buruz duten iritzia ezagutzeko.

Japonen, hogeitabost urte baino gehiago duten emakumeei adina galdetzea gaizki ikusia dagoen arren, orain Arrasaten bizi dela aprobe txatuz, zenbat urte dituen galdetu diogu Chieko Hatari. Chieko orain dela hogeitahe meretzi urte jaio zen Nagasakin. Japonen jaio arren, toki askotan bizi izan den emakume honentzat zaila da nondarra sentitzen den esatea: "ni ez naiz inongoa, munduko hiritar sentitzen naiz". Chiekok Tokion egin zituen ikasketak, heziketaren filosofia ikasi zuen. Bertan ezagutu zuen orain bere senarra dena, Jon Goikolea arrasatearra. Japon eta Thainlandian bizi izan eta gero, aurtengo apirilean Arrasatera etorri dira bizi izatera eta, lan egitera. Udalxetik jasotzen ari diren

arrisku soldataren laguntzaz, itzulpen eta aholkularitza enpresa zabaldu dute. Dударik gabe, aldaketa handia izan da Chiekorentzat, batez ere hainbat ohitura aldatu egin behar izan duelako. Baina pozik dago eta herria gainera gustoko du: "Arrasate herri lasaia da eta paisaia zoragarria du inguruan. Ohitura batzuk ezagutzeko aukera ere izan dut eta oso aberatsa dela iruditzen zait". Herriko jendea ere jatorra dela dio, nahiz eta igarri duen arraza desberdineko jendea ikusten ohituak ez daudela. Noizean behin gogoratzèn da Chieko atzean utzitakoaz, baina egia esan, ez dauka pentsatzen egoteko astirik: "egunero gaztelera ikastera joaten naiz eta sukaldaritzako ikastaro batetara ere bai". Galeperrak gertatzen ikasi du eta sagarren pastela ere gozoa ateratzen zaio. Hori bai, Japonen gordinik jaten den arraina bezelakorik ez omen dago.

KLIMA EPELETIK HOTZERA

Idalma Sotori, aldiz, hemen haragia erdi gordinik jaten dugula iruditzen zaio. La Habanan jaio eta bizi izan den kubatar hau, Jose Ignazio Saggastarekin Kuban ezkondu ondoren, aurtengo martxoan senarraren herrira etorri zen bizi izatera. Hasieran txanpo-



Chieko Hata Japonen jaio eta hezi zen.

JOSEBA VALLES.



Idalma Soto, orain dela hogeitazortzi urte jaio zen La Habanan



Marina kabribeko irla batetik dator, Errepublika Dominikarretik. J. V.

nak erabiltzen ikastea asko kosta omen zitzaion eta hemengo hainbat ohitura eta jendea ere, apur bat arrotzak iruditzen zitzaizkion: "jendea jatorra da, baina ez oso irekia. Kuban edonorekin hitzegiten dugu, hango jendea oso zabal da". Baina hogeitazortzi urteko maistra kubatar hau ere pozik dago Arrasaten. Senarraren dendan gustora egiten du lan eta euskara ikastera ere joaten da, izan ere berak argi dauka: "euskara ikasi behar dut, herri honetan integratuko banaiz". Otsailean edo, Kubara joateko asmoa du, familiarterako eta lagunak bisitatzeko gogo duela eta hango jai giroa ere faltan botatzen duela: "hemen jaiak izaten dira, baina jendeak dantza gutxi egiten du. Kuban datza asko egiten dugu, eta festak oso alaiak izaten dira".

KARIBETIK ARRASATERA

Iritzi berekoa da Mariana Bautista ere. 22 urteko emakume honek ere bere jaioterriko, errepublika dominikarrek, jaiak faltan botatzen ditu: "hemen jendea egoten da tabernetan, baina ez da dantzarik egiten. Han edozein egunetan dantza giroa izaten da". Beroi ere hemengo ohituretar moldatzea kosta egin zitzaion. Janariak oso desberdin preparamen ditugula uste du, baina ikasi du hainbat jai hemengo erara gertatzen. Marianak Santo Domingoko hotel batetan egiten zuen lan idazkari bezela. Han ezagutu zuen bere senarra dena, Luis Bachiller, eta bertan ezkondu ondoren, joan zen urteko abuztuaren 10an Arrasatera bizi izatera. Marianak afizio asko ditu baina gantxilloa egitea gustatzen zaio batez ere. Hemen daraman denboran, gainera, izan du astirik etxea berak egindako lanez apaintzeko. Udan, bere jaioterriara joan zen eta familiarterkoak bisitatzeaz gain, klima epelaz gozatu zuen, faltan

botatzen zuen eta; nahiz eta joan zen urtean lehendabizikoz hemen pasa zuen negua ez zitzaion gogorra iruditu.

ATLANTIKO ZEHARKATUZ

Hotza pasatzen ohituta dagoen arren, hezetasun handiagoa dagoela eta, hemengo hotza Quebekekoa baino jasangaitzagoa iruditzen zaio Sylvie Schiettekatte. 28 urteko emakume hau aurtengo urrian ezkondu da Xabier Retegi arrasatearrarekin.

Sylvie Perun jaio zen eta bertan bizi izan zen sei urte zituen arte, horregatik, ondo mintzatzen da gazteleraz. Ofizioz erizaina dugu eta orain masterra bukatzen ari da. Horrek, noski, denbora asko kentzen dio. Baina zerbait nahi duenak beti aurkitzen omen du denbora, eta Sylvie jakin du gustatzen zaizkion ekintzetarako astia bilatzen: "lana bilatu nahi nuke, baina euskara ere ikasi nahi dut. Oso folklorezalea ere banaiz, eta hemengo dantzak ikasi nahi ditut". Oraingoz, Goikobalu abesbatza kantzatzen hasi da eta 3. munduko taldean ere lan egiten du. Afrikan ibilitakoa da, haiz zuzen ere erizain gisa lan egitera joan zen. Ertamerikan ere hilabeteak pasa zituen. Orain Arrasaten bizi den arren ez du hirugarren mundua ahaztu nahi. Horregatik, txiroenei lagundu nahi dion talde honetan sartzea erabaki du. Jaioterria faltan ez duela botatzen dio, baina bere herria bihotzean darama eta enbaxadore bat bailitzan, bertako egoeraren azalpenak gogoz egiten ditu: "Quebeken jende guztiak frantsesa daki eta halaxe mintzatzen da. Eskolan ingelesa irakasten da, baina herria frantsesez bizi da. Hizkuntza eta nazionalismoa oso lotuak daude Quebeken. Ni beti sentitu izan naiz Quebekekoa, eta nire seme alabei, euskaraz gain, frantsesa ere irakatsiko diet".



Perun jaio arren, Quebekiarra da Sylvie.

JOSEBA VALLES

Maria Jose Gil, Makatzenako munduko txapeldun bat

Arrasatek badu munduko txapeldun bat. Ia uste-kabea, Mari Jose Gil joan den urriaren 31n Donostian korritutako Maratoiko Munduko Kopan lehena iritsi zen bere kategorian, emakumezko beteranoetan, 50 urtetik gorakoetan. Beraz, bera da txapelduna, eta urrezko domina eta txapela etxean ditu dagoeneko.

Rondan, Andaluzian, jaio zen Mari Jose Gil, baina Arrasaten bizi da aspalditik. Abenduan 53 urte beteko ditu, eta forma paregabea dago. Beti izan da kirol-zale, baina oso berandu hasi zen zeozer erdi-serio praktikatzan. 41 urte zituela, operazio bat egin zioten, eta hartatik errekuperatzeko hasi zen footing egiten, medikuak gomendatuta. "Gogoan dut oraindik Urkuluri lehen itzulia eman nionean, hiru ordu laurden inguru, eta erabat nekatuta, baina ederto sentitu nintzen", kontatzen digu Mari Josek.

Apurka-apurka, entrenatzeari ekin zion, eta horrela konpetizioetan ere parte hartzen hasi zen. Iaz, adibidez, Behobia-Donostia lasterketan, 3. izan zen bere kategorian. Baina sorpresa Maratoi Kopakoa izan da, bere bizitzako lehenbiziko maratoia izan baita (3.48.20 egin zuen). "Helmugara iritsi nintzanean, jende guztia



Mari Jose Gil, bere domina eta txapelarekin.

hasi zitzaidan zorionak ematen, eta nik, jakina, amaitzeagatik zoriontzen nindutela uste nuen, baina gero paper bat sinatzeko esan, eta txapelduna nintzela konturatu nintzen". Une hunkigarria izan zen Mari Joserentzat hori, atzerriko izarren aurrean halako garaipena, baina, tamalez, Atletismo federakundeko nazioarteko burukideekin protokolo arazoak gertatu zirela eta, ez zioten domina zeremonia

ofizialean eman.

Hala ere, etxean gordezten du harro-harro saria. Makatzenan bizi da Mari Jose Gil, eta "horregatik nabil hain ondo, egunero gora eta behera", komentatzen digu umorez. Familia kirolzalea dira, duda barik: senarrak, Manuel Silvarrek, korrika egiten du berarekin, eta alaba, Adelaida Silvar, gimnasia erritmikoan ari da. Eta munduko txapelduna ere badute orain etxean.

LABURRAK

Positiboak galtzen

Beste positibo bat galdu zuen Mondrak joan den igandean. Bolada txarrarekin jarraituz 1-1 egin zuen Mungiaen aurka. Oraingo hone-tan, ez zuten arrasatearrek suerte gehiegi eduki. Lehen zatian aukera ugari izan arren, gol bakarra sartu zuten (Ikerrek, 17. minutuan), baina bigarren zatian, dudazko penalti baten ondorioz, parra egin zuten bizkaitarrek, nahiz eta Mungia ez zen egon batere ondo. Berritro ere, gure taldea plantilaz estu samar dagoela ikusi zen, Iñaki Zeziagak 2. regionaleko bi jokalariz elai-ratu behar izan baitzituen. Honenbestez, 13. jardunaldiaren ostean, 9. dago Mondra, 14 puntu eta 2 positiborekin.

Eski egiteko aukera

Martxan dago jada aurtengo neguko gazteentzako eski kanpaina, eta irteerak, prezio onean (iaz baino merkeago), Gazteentzako Informazio Bulegoan kontratatu ditzakezu. Egun bateko (1.800 PTA), asteburuko (7.400-7.800 PTA) edo astebeteko (27.000) irteerak antolatzen dira Pirinoetara. Irteerak Donostiatik diren arren, zortzi laguneko taldeak antolatu ezkerre Arrasateetik bertatik egongo dira autobusak. Aurtent, gainera, snowboard edo elur-taulaz ibiltzeko asteburuko irteerak ere badira (10.600 PTA).

Kirol klubak eta erakundeak, buruz buru


PILOTA

● **Pilotako klub artekoan, Arrasateko sei partehartzaileetatik, bi pasa dira jada 2. fasera: jubenil banakakoa (aste honetan sailkatua) eta kadete binakakoa (nahiz kaleratzeko arriskuan dagoen, 22-5 emaitza gairiditu behar dute larunbat honetan Real Sociedadeko donostiarren aurka).**

● **Senior bikotea ere sailkatzekotan dago, baina sailkapena Bergara-Oñati neurketaren baitan dago, segun eta zer emaitza dagoen. Kluben arteko Gipuzkoako txapelketa honetako finalistak eta semifinalistak Euskal Ligara pasako dira gero.**

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuek antolatutako Kirol Politikari buruzko topaketak joan den ostiralean izan ziren Oñatin. Gai nagusi baten inguruan bildu dira bertan ehun lagunetik gora: kirol taldeen eta erakundeen arteko harremanen inguruan.

Arrasatetik joandakoan artean, Jesus Mari Herrero egon zen, Eskubaloitako taldeko lehendakaria, mahainguru batean parte hartzeko. Bestetik, Arrasateko udalaren politika komentatzeko aukera ere izan zuen gurekin. "Udalak ez du kirol-proiekturik", esan zigun Herrero. "Diru-laguntzen araudi bat besterik ez du, eta laguntzak beharrezkoak dira, baina benetan nahi duguna kirol plan-



Txispas, AUKEAko burua, eta Jesus Mari Herrero topaketetan.

gintza oso bat da". Kluben eta Arrasateko udalaren arteko erlazioa ez da onegia izan azken urte honetan, AUKEAren kiroldegietako kuotak zirela eta.

Topaketetako antolatzaileak, Deba Garaiko Kirol Zerbitzuak, lau urtez dabil-

tza elkarrekin lanean, eta topaketa hauekin ezagutzera ematea ere nahi zuten. Laguntzaile gisa, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kirol Arloko Iritzi Taldea (KAIT delakoa) izan ziren jardunaldietako antolakuntzan.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 1 - Mondra 1
Hurrengoak:
3. maila: Arenas - Mondra. Igandea, 15.30.
Emakumezkoak: Mondra - Zumaiako. Atxabalpe, igan., 12.00.
2. regionala: Mondra - Mutriku. Atxabalpe, lar., 15.30.
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Mundaiz. Igandea, 15.30.
Jub. 2. maila: UDA - Arrasate. Almen, igan., 11.45.
Kadeteak, 1. maila: Eibar - Arrasate. Igandea, 12.00.
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Eibartarrak. Igandea, 10.00.
Haurrak: Aloña Mendi - Arrasate. Oñati, lar., 10.45.

Saskibaloia

2. maila: Arrasate 90 - Paules 77
Sub-23: At. San Sebastian 78 - Arrasate 64
Jub. mutilak: Arrasate A 33 - Askatuak A 46
Arrasate B 60 - Iruruk B 63
Jub. neskek: Patterncam 65 - Sasoeta 42
Kad., neskek: Arrasate A 35 - Hondarribia A 54

Arrasate B 35 - Bergara KE 68
Kad., mutilak: Don Bosco 60 - Loramendi Kirolak 59
Arrasate B 52 - Etxadi 62
Hurrengoak:
2. maila: Arrasate - Gasteiz. Iturripe, larunbata, 18.30.
Sub-23: Arrasate - Garai. Musakola, igan, 11.30.
Jub. mutilak: Juven - Arrasate A. Donostia, lar., 12.00.
Laskorain - Arrasate B. Tolosa, lar., 16.00.
Jub. neskek: Patterncam - At. San Sebastian. Musakola, igan., 11.30.
Kad., neskek: Arrasate A - Juven B. San Viator, lar., 12.00.
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak - Askatuak B. Musakola, lar., 12.00.
Akelarre - Arrasate B. Donostia, lar., 09.00.

Rugby

Euskal liga, 2. m.: Arrasate 88 - Bizkaia 3
Neskek (lagunartekoa): Arrasate 55 - Unibertsitariak 0

Hurrengoak:

Euskal liga, 2. m.: Durango - Arrasate. Larunbata, 16.00.
Jubenilak: At. San Sebastian - Arrasate. Donostia, igan., 11.00.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Akondia 15 - Arrasate 17
2. eskualdekoa: Pulpo 13 - Arrasate 17
Jubenilak: Legazpi 10 - Arrasate 16
Hurrengoak:
1. eskualdekoa: Arrasate - Bergara. Iturripe, lar., 16.30.
2. eskualdekoa: Arrasate - Ordizia. Iturripe, igan., 12.00.
Jubenilak: Arrasate - Hondarribia. Iturripe, igan., 10.30.

Pilota

Gipuzkoako klub artekoa:
Jubenilak, banaka: Arrasate 18 - Kukua 5
Senior, binaka: Idiazabal 13 - Arrasate 22
Kad., binaka: Real Sociedad 22 - Arrasate 5
Hurrengoak:
Kad., binaka: Arrasate - Real Sociedad. Lar., 11.00.

Ongi aukeratu ahal izan dezazun

Gizonezkoentzako
erropa

Egizabal

Gizonezko eta
emakumeentzako
oinetakoak

Bidekurutzeta, 13 Tfnoa: 76 12 28 BERGARA



Desagertu berri da Axerido Bedoñabe Erdikoa baserria. Bertako familiaren erretratu zahar bat duzue hau, orain 76 urte ateratakoa.

Zutik ezkerretik eskumara, **Bixente, Damian, Anastasi** eta **Anjel Arregi Berezibar**.

Jarrira, **Bixente Arregi Azurmendi** (1848an Bedoñabe Erdikoan jaioa), bere andrea, **Juana Berezibar Lasa** (1857an Montxon baserrian jaioa) eta **Juana Etxabe Iturbe** (Muxibar baserriko alaba, 1890ean jaioa, eta Angelen andrea.

Umeak Angel Arregi eta Juana Etxaberenak, **Joxe M., Joxe Antonio, Juanito** eta

Dolores. Guztira 11 seme-alaba izan zituzten (horietatik 8 bizi dira), gaur egun Axeritarrek bezala ezagutzen ditugunak.

Etxearen historia luzea da. Joan den mendearen hasieratik agiritan garbi agiri den arren, askoz aurretikoa zela esaten duten datuak ere badaude. "Historia del Condado de Oñate y Señorío de los de Guevara" liburuak jasotzen duenez, 1352an Beltrán de Guevarak etxeak zituen Lenizko "Vendoyave" delakoan ("et las casas et solaren que yo he en la aldea de Vendoyave que es tierra de Lenis..."). Itxura dagoenez, Bedoñabe lehenengoa (Atxa)


orain San Andres eskola dagoen lekuan zegoen, Bedoñabe Erdikoa edo Axeri orain bota berri dutena, eta Bedoñabe Hirugarrena (Takolo).

Bedoñabe Erdikoa sasoi baten Mondrauen labrantzako baserri inprotanteenetakoa izana da, baina bere lurretan trenbidea eta kaminoa egitea lehenik, eta Polmetasa eta inguruko tailer guztiak gero, baserria desagertzera arte azkenean.

Axeri sagordotegia ere izan zen, 40. hamarkadan. Tresneria Olandixotik ekarritakoa zen, eta sagardotegia itxi eta gero ere, 1967rarte jarraitu zuten Axeritarrek etxerako sagardoa egiten.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE



Zubiaga
Kale-barria, 18
20.560 ONATI
Tfnoa: 71 60 74

Zubiaga
Maalako Arrabala,
20.500 ARRASAT
Tfnoa: 79 19 25 FAX: 79 14 8

UNITED COLORS OF BENETTON

Maalako Arrabala, 13 ("Okendo Kirolak" en ondoan) Tfnoa: 79 50 78 ARRASATE



**a, eme...
interiores**

Etxeko ekipamendu osoa

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



“Adibidez”, HIESaren aurpegi ezezaguna

HIESaren inguruan herri guztia inplikaturiko duen proiektu erraldoia bat da “Adibidez”. Klean izango da, herritarren partizipazioa bultzatu nahi du eta denok HIESa era positiboagoan ikustea.

EGITARAUA

Proiektua azaroaren 22an hasi zen San Frantzisko kalistroetan “Zerra” artista arabatarrak burututako pintura eta eskulturen erakusketa batekin. Erakusketa hau 24rarte izango da eta egun honetan, kalistroetan eta gainerako lokaletan, HIESari buruzko mundu osoko kartel, triptiko eta beste materialen erakusketa zabalduko da. 27an, larunbatean, Besaideren laguntzaz, tirolina eta rapelak izango

dira Seberon. 17.00ak aldera, haur jolasak eta 18.30etatik 19.00etara, Zerraren erakusketari amaiera emango zaio modu bitxi eta atipiko batean. Gaueko 22.00etan, Rock jaialdia izango da kiroldegian Kojon Prieto, Reincidentes eta Ume Gaiztoak taldeekin. Igan-dean, mahai informatiboa, txotxongiloak, bertsolariak eta kafe-teatroa izango dira egunean zehar. Azaroaren 29an, Hitzaldi-eztabaida burutuko da “HIESa eta emakumea” gaiaren inguruan. 30ean, Oihulari Klown antzerki taldeak antzezlan bat egingo du Seberon.

Abenduaren 1ean, HIESaren Mundu mailako Eguna izango da. Hori dela eta, ekintza bereziak burutuko

dira egunean zehar. Ekitaldi sinbolikoena 18.30etan burutuko den giza-kataia izango da; 20.30etan Seberon sutea piztuko da. 21.30etan, afaria. Abenduaren 2an, Gipuzkoako HIESaren Kontrako Elkartearen eskutik, hitz potoloak alde batera utziz, hitzaldi-eztabaida interesgarri bat burutuko da Monterronen. Abenduaren 3an, “Adibidez”i amaiera emango zaio. Folk Jaialdi erraldoi batek itxiko du aste osoa. Amaia antzokian izango da eta beste batzuen artean, Tunantes del Norte, Arrasate Musikal, Lore Gazteak, Corazon de Encina, Al Andalus eta Arrasateko Gaiteroak eta bi aurkezle ezagunek HIESaren aste magiko honi amaiera behar bezala emango diote.

“Idazketaren Artea” lehiaketako lanak ikusgai

Jadanik gehienok jakingo duzue Arantzazu Ugarte arrasatearra izan zela Euskal Herri eta Gipuzkoa mailan idazketa lehiaketa honetan irabazle. Arrasatearron partehartzea urte guztietan izan da handi oso, baina aurtengoan adina irabazle arrasatear ez da sekula izan. Susana Martin, aurreko urteetan lehenengo postua eskuratu izan duen neska, Gipuzkoa mailan 3. gelditu da, baita Euskal Herri mailan ere. Maria Olatz Amozarrain arrasatearrak, Araba mailan lehenengo saria etxeratu zuen eta Osane Lizarralde, Oho-rezko Diploma eskuratu zuen. Lan hauen eta gainontzeko guztietatik 100 onenak, Monterron jauregian izango dira ikusgai azaroaren 22tik 28ra bitartean. Zure informaziorako, jakin ezazu aurtan 8.161 pertsonak hartu dutela parte eta sekula baino kalitate hobea izan dela esan dutela antolatzaileek. Erakusketa bitxi hau ikustera joatea gomendatzen dizuegu: beste urte batzuetan ere izugarriko pazientzia eta mimoarekin egingdako idazketak ikusi ahal izan dira. Dena den, lerro hauen bitartez, arrasatear irabazle guztiei gure zorionik beroenak.

- Karatea
- Aerobic-a
- Sauna
- Solariuma



- Mantenimendu
- gimnasia
- Muskulazioa
- Squash-a
- Masaia

Kontzezino kalea, z/g. Tfnoa: 79 97 31 ARRASATE




JOSEF VACULA
Txekar errepublika

ONGI ETORRI!! MUNDUKO SOINUJOLE ONENAK




PAVEL FENYUK
Ukrania



IÑAKI DIEGUEZ
Irun



OKSANA SHISHOVA
Ukrania



JAN MEISL
Txekar errepublika

ARRASATERA DATOZ, ABENDUAREN 4TIK 8RA

- Estatuko 290 soinu-jole ere lehian.
- Emanaldiak, Institutoan eta Amaia Antzokian.
- Prezio popularra.
- Ez galdu abenduaren 6an eta 8an Amaia Antzokian egingo diren bukaerako galak.
- Arrasateko Elkarteak arduratu dira egonaldia antolatzeaz
- Partehartzaileen artean, 35 mondrauetar.
- Punta-puntako epaileak.
- Laster munduko onena izango den Akordeoi Lehiaketa, zure etxean, mondrauetarra!

KRISTON MARTXA, HI!!

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Isaban apartamentua alokatzen da.** Sukaldegongela, komuna, 2 logela. Interesatuak (948) 11 14 58 tfnora deitu (8etatik 10etara). Juanan.
- **Deustun pisu bat betetzeko** pertsona bat falta da. Tfnoa: 79 14 71.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan.** 80 m². 3 logela, 2 bainu, saloia, sukaldea, berogailua, igo-gailua, eta ganbara ditu. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 61 95.
- **Injinaritzako hiru ikasle pisu bila** Arrasaten. Mesedez, azkar-azkar deitu. Tfnoa: 79 41 69.
- **Pisua saltzen da Gasteizen.** Erdialdean. 130 m². Berriztea behar du. Tfnoa: (945) 13 07 27.
- **Gela bat bi oherekin** alokatze da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Apartamentua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-gongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitua eta kalefakzioaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gauez deitu. Luis.
- **Donostiako Gros auzoan** neska bat behar dugu pisua osatzeko. Tfnoa: 29 32 90.
- **Aretxabaletan bi logela** alokagai, sukalderako eskubideaz. Tfnoa: 79 04 62.
- **Lau kalean, Ronbeoko etxeetan,** 16,5 m² garaje itxi bat alokatzen da. Lehenengo pisuan. Tfnoa: 79 18 95.
- **Lokal bat salgai.** 85 m². Elkano kalean, 4. Tfnoa: 79 19 99. Manuel Bouzon.

Lana

- **Haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko** neska bat prest. Deitu 77 06 48 tfnora. Dorleta.
- **Injinaritzako 3. mailako** ikasle batek, dibujo klaseak emango lituzke (B.B.B. eta U.B.I.). Tfnoa: 79 98 70.
- **Emakumea prest umeak zaindu,** etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- **Biokimikako klaseak hartuko nituzke.** Urgentea. Deitu (94) 464 07 49 tfnora astegunetan eta 79 08 21ra astebukaeretan. Gauez. Naia-ra.
- **Goizetan ingelesezko klaseak** hartuko nituzke. Bilboko 3. maila egiten ari naiz. Tfnoa: 79 28 49.
- **Enpresa-zientziak egindako** neskak klase partikularrak ematen ditu. O.H.O., B.B.B., U.B.I. edo enpresa-zientzietako ikasleei (mate, kontabilitatea,...). Tfnoa: 79 16 19.
- **Puerikultura titulu** eta esperientziadunak haurrekin edo haurtzaindegian lan egingo luke. Tfnoa: (945) 44 53 31. Eva. Aramaixo.
- **Matematika, Fisika eta Kimikazko klaseak** ematen ditut. O.H.O., B.B.B. eta U.B.I. Tfnoa: 79 42 97. Deitu eguerdian.
- **Ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Natibo edo lizentziatua. Tfnoa: 71 41 14.
- **O.H.O.ko 8. mailako klase partikularrak** emango nituzke. Euskaraz eta edozein asignatura-takoak. Dei egin 79 28 93 tfnora.
- **O.H.O.ko zein ingelesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 45 60. Sonia.

Salerosketak

- **100 litroko FAGOR termoa** salgai. Prezio ona. Tfnoa: 71 07 73.
- **Estufa japoniar bat salgai.** Interesatuak dei egin 79 99 91 tfnora.
- **Estufa japoniarra salgai.** Prezio egokia. Kalentadore junkerra ere salgai. Tfnoa: 79 04 54.
- **Nintendo konsola salgai.** 2. eskukoak. Oso ondo dago. 5.000 PTA. 2 mando. 2 joku: Terminator 2 (4.500 PTA) ; Race-Race (3.500 PTA.) Tfnoa: 79 92 73.
- **Ford Fiesta 1.4 salgai,** SS-X. Oso goera onean eta prezio ezin hobean: 350.000 PTA. Tfnoa: 79 76 89. Ion.

Denetarik

- **Beroki bat galdu nuen asteazkenean.** Meca parean kotxeak garbitzeko dagoen tokian. Tfnoa: 79 90 57. Olatz.
- **Samoiedo txakurrak salgai.** Pedigrigunak. Ar eta emea. Prezio interesgarria. Tfnoa: (945) 27 78 44.
- **Astean zehar,** gaueko 9ak inguru, Gasteiztik Eskoriatzarako bidea autoz egiten baduzu, deitu ALECOPer. Tfnoa: 79 50 11. Esther Perurena.
- **Betaurrekoak galdu nituen** joan den asteartean Arrasaten. Burdinezko markodunak. Deitu 79 89 48 tfnora 9etatik aurrera. Ainhoa.

Aste Gazte

Eski-kanpaina (Diputazioa)

• 15-29 urte bitarteko gazteei zuzendutako kanpaina. Modalitateak: alpinoa eta snowboard. Egun bat, aste-buru eta astebeteko irteerak. Astun, Candanchu, Formigal eta Pal (Andorra). Prezio interesgarriak.

Salsa

• Jadanik neska ugarik eman du izena abenduaren 9tik 20ra bitartean burutuko den ikastaro honetan parte-hartzeko. Mutilak ez dira ausartzzen ala?

Sexualitate-tailerrak

• Begiraleei zuzendutakoak: abenduaren 27-28an, Urkulun. Alojamen-dua eta mantenua: 1.600 PTA.

• 23 urtetik gorako gazteei zuzendutakoak. Urtariletik martxora bitartean. Astear-teetan, 6.30etatik 8.30etara. Monterronen. HIES-Ekime-nak eta Gazte Zerbitzuak elkarlanean antolatutakoak.

Bekak

• 94-95 ikasturtean Italian ikerketa lanak nahiz ikasketak burutzeko bekak.

Baldintzak: 35 urtetik behe-rako lizentziatuak (edo kar-rerako azken mailakoak), italiara menperatzea. Epea: abenduak 27.

Lehiaketak

• Arrigorriagako VI. Argazki Lehiaketa. Gaia: librea. Zuribeltz nahiz koloretan. Gehienez, 3 argazki aurkeztu daitezke. Sari garrantzitsuak. Epea: azaroak 30.

• Bergarako III. Kirol Argazki Lehiaketa. Zuribeltz nahiz koloretan. Gehienez ere, 4 argazki modalitate bakoitzeko aurkez daitezke. Epea: abenduak 1.

“Ez zeuden konforme mutiko jaio, ta honengatik bakarrik, beren gaztaroko urterik ederrenatakoak, dekretoz, militarizatuta egotearekin”.

K. BEITIA (IRAKASLE ETA PSIKOLOGOA EUSKALDU-NON EGUNKARIAN)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Aitor Unamuno

Azoka Plazako zapataria

- Zenbat zapata konpontzen duzu egunero? 25-30 pare.
- Zein konponketa da garestiena? Larruzko jaka bati kremlera jartzea.
- Kanperak edo Martinsak? Kanperak.
- Zer moduz doa negozioa? Nahiko ondo, ezin nahiz kexatu.
- Zein izen jarriko zenioke katu bati? Txiki.
- Zein beste izen jarriko zenioke zure buruari? Gaizka edo Josu.
- Gezur asko esaten duzu? Ez dut ustel!
- Erosi duzun azken erropa? Praka bakero batzuk.
- Erretzen duzu? Ez.
- Telebistako zein katai ikusten duzu gehien? Antena 3 eta ETB.
- Fruta bat? Platanoa.
- Egin duzu soldaduzkarik? Ez, kupoz kanpo geratu nintzen, eskerrak!
- Neska rubiak edo morenak? Morenak.
- Zerk beldurtzen zaitu? Gerrate posible batek, adibidez.



BERTSOAK

Hilerri berria

Orain ilerri berria degu gure notizi bezela, orain bai toki paregabean sartu bear gaituztela; San Kristobal-gain zoragarrian, eztana inoiz ozpela; Aldaiko gisa, danok ixilik an konpondu gaitetzela.

Ez diranetik gure maitasun oiek beti atseginak, zoritxarrean ez ote gera alkarri maiz letzegiñak? geltoki ontan utzi ditzagun negarrak eta samiñak; aruntz eraman baño len aztu gure konpondu eziñak.

JOXE MANUEL ARRIOLA

LORAMENDI KIROLAK



ESKI ESKAINZA BEREZIA

SKI	
TECNO B-50	13.500
LOTURA	
SALOMON	8.900
BASTOIA	
TECNO PRO-PODWER	1.950

~~24.440~~

19.900.-

INTERSPORT

TECNO PRO

MAIATZAREN 1. PLAZA TFNOA: 79 97 24

Herri Komunikabideen II. Jardunaldiak Hedabideen hedakuntza

Asteburu honetan Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak izango dira Arrasaten. Duela bi urte izan ziren I. Jardunaldiak, eta orduko haiek izenburuz "herri aldizkari buruzkoak" ziren arren, oraingo honetan esparrua zabaldu egin da: telebista eta irrati lokalek ere izango dute beren txokoa.

Topaketa hauen antolatzailea ARKO da, ARRASATE PRESS eta ATB bere baitan dituen elkarteak. Babesle gisa Euskadiko Kutxa, Gipuzkoako Diputazioa, Nafarroako Gobernua, Eudel (euskal udalen elkarteak) eta Arrasateko Udala daude, eta laguntzaileak Bienvenido Gil SA, Geru inprimategia eta Ikatz dira.

Jardunaldiek Santa Agedan izango dute egoitza, Aita Menni ospitalean, eta ostiral eta larunbatez bilakatuko dira. Guztira, 160 lagunek hartuko dute parte topaketa hauetan. Horiatarik 30 bat txostengileak izango dira, entzun eta hitz egitera datozenak.

Aurrekoekin alderatuta, irrati eta telebistaren gehikuntza da agian aipagarriena. Hala ere, ukitutako gaietan, aldizkarigintzak lehentasuna izango du seguruenik. Arrazoi argi dago: prentsa idatzia nahiko kontsolidatuta dago, ez da azpiegitura larregi behar aldizkari bat egiteko, eta



Jardunaldien aurkezpen ekitaldia Donostian egin zen asteartean.

dagoeneko nahiko ugariak dira. Telebista eta irratiak beste kontu bat da: irratiak, frekuentzia banaketa nahiko estu markatuta dauka legeak, eta telebistan baliabide tekniko eta ekonomiko nahiko handiak behar dira. Hala ere, aldizkariak gain, beste hedabideak hartzen dituzten multimedien esperientzia gora doanez, alderdi honek ere izango du trataera.

SAIL PRAKTIKOETAN BANATUTA

Bi sailetan antolatu dira Jardunaldiak, eta arlo praktikoko bat ere izango dute: argazki-

larritza tailerra. Izena eman dutenek aukera izango dute, sail bateko zein besteko hitzaldi edo eztabaidetara joateko. A sailean, hasteke daudenentzako "gomendiozko" txostenak antolatu dira, nolabait esateko.

"Oraindik martxan ez daudenentzat, rezeta teoriko batzuk ikusteko aukera izango da A saila", esplikatzeko digu Jose Felix Diaz de Tuestak, Jardunaldien zuzendari teknikoak. "Herri telebista bat.. irrati bat...edo aldizkari bat zure herrirako". Horiek dira txostenetako izenburu batzuk. Beste txosten praktikoko bat:

.....
Lehen jardunaldiak aldizkari buruzkoak izan ziren, oraingoan irrati eta telebistak ere ukituko dira.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

BLUSAS OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

“Saliezaziozu iragarki bat auzoko dendariari”. Aldizkari hasiberri batzuek beren esperientzien berri ere emango dute (Eraz, Geu Gasteiz, Elgoibarren).

B sailak interes gehiago izango du dagoeneko martxan dauden komunikabideentzat. “Herri komunikabideentzat, ari direnentzat, formula praktikoa batzuk aztertuko dira”, Diaz de Tuestak esaten digun bezala. Alde batetik, adibidez, aldizkarien diseinua, dokumentazioa eta edu-

kia aztertzeko mintegiak egingo dira. Multimendien esperientzia ere tratatuko da, ARKOrena barne; eta Nafarroako Unibertsitateko Carlos Soriaren hitzaldia: “Herri komunikazioaren hainbat dilema etiko”.

A eta B sailetatik aparte, aipatutako argazkigintza ikastaroa izango da, eta aldi berean, erakustoki iraunkor batean, lan praktikoen adibideak egongo dira: ARRASATE PRESSen ale berezi bat egiten egongo gara bertan; ATBren

estudio bat ere muntatuko da, eta autoedizioko material informatikoaren eta inprenta lanen bi erakusketa ere egongo dira.

EUSKARAZ ETA ERDARAZ

Jardunaldietako txosten gehienak euskaraz izango dira, baina ez dira soilik euskal esparrura mugatutako jardunaldiak: denok uler dezaten, aldi bereko itzulpen zerbitzua egongo da Santa Agedan. Kanpotarren artean,

Madril, Katalunia eta Galiziatik ere badator jendea.

Dena den, euskararen normalkuntzaren eta herri komunikabideen arteko erlazioa ere azaleratuko da Jardunaldietan. Izan ere, euskarazko aldizkari eta abarren zabalkundeak duda bako eragina izan du euskal munduan, eta aldi berean, erdarazko herri-prentsaaren hedapena gelditu egin du. Nahiko argi dago, euskarazkorik sortu ezean, erdarazko medioak ere ugalduta egingo direla herriz herri.

Hurrengo urratsa: irratia

Duela bost urte sortu zen Arrasate Press; duela hiru urte, ATB, eta biak uztartzeko tresna, ARKO, duela bi. Laster, hurrengo urratsa ezagutuko du Arrasatek: irratia. Udalak bi lagun kontratatu ditu dagoeneko Arrasate Irratia martxan jartzeko. Duela bi aste ari dira lanean proiektu honetan Nerea Zubiete (30 urte, eskoriatzarra) eta Patxi Montero (27 urte, arrasatearra).

Irratia zuzpertzeko ideia ARKOTik sortu zen. Hala ere, irratia esparrua oso markatuta dago legez (ez horrenbeste telebistarena, adibidez), eta irratia-frekuentziak eskuratzeko ahalmena udalek besterik ez dute. Horregatik, udalak berak ja-

rriko du martxan Arrasate Irratia.

Euskarazko irratia izango da, tarteka Euskadi Irratiarekin konektatuko duena, baina programazioa zehazten ari dira oraindik Montero eta Zubiete. Proiektua aurrera eramatea, maiatzean erabaki zuen korporazioak, PSE-EEren aurkako botoez (komunikabide elebidunak defenditzen dituzte Arrasaterentzat).

Arrasate Irratia 94eko hasieran has daiteke emititzen, frogetan aste batzuz, serio hasi aurretik. Laster, azpiegitura muntatzeko 13 milioiko inbertsioa egingo du udalak. Ondoren, urteroko funtzionamenduaren aurrekontua 10 bat milioi PTAtan egon liteke.



Patxi Montero eta Nerea Zubiete, Arrasate Irratiko lehen bi langileak.

Hilbera
kafetegia

Urbarri Etorbidea
ARRASATE

LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA


Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

• AIPUA •

"Jakintsuak erakutsi nabi duena egin egiten du lehenik, eta gero erakutsi."

CONFUCIO

• JEROGLIFIKOA •



Kontuz...

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10					11	
12				13		14
15			16			
17		18		19		
20					21	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Cesar Cimiano, margolaria. 6. Euskal Batasuna. 8. Arropak garbitzeko lekua. 10. Aranondoaren fruitu. 11. Titanioa. 12. Nahaste borraraste. 15. (Ald.) Molibdenoa. 16. (Ald.) Gai sendo, garden eta hauskor. 17. Kataluniako ibaia. 19. (Ald.) Artaburuak ematen ditu. 20. Ulertu aditzaren infinitiboa. 21. (Ald.) Bi eta bi.

Bertikalak 1. Txalo egin. 2. Txilibitu. 3. Zimel. 4. Fundatu aditzaren infinitiboa. 5. Idi, hitz elkartuetan. 6. Zerbait burutzeko era. 7. Bizkaiko ibilgailuetan. 9. Desesperatu. 13. Sasoi. 14. (Ald.) Sumendiak kanporatzen du. 18. Musika mota.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez pentsa denetan onena zarela. Badaude zu baino hobeak ere.

Taurus Irrifarre polit horrekin ez duzu nahi duzuna konkistatzeko arazorik izango.

Gemini Ia ikasten duzun hain zikina ez izaten eta natura gehiago maitatzen.

Cancer Beti zerbait ahaztuta. Egunen batean burua ahaztuko zaizu nonbaiten.

Leo Ordua da ametsen paradisuak jaitsi eta esnatzeko.

Virgo Beti bizitzaren alderdi onak ikusten, baina gogoratu txarrak ere badauzkala.

Libra Aurretik ikasten hastea komeni zaizu azterketek ustekabeen harrapa ez zaitzaten.


Scorpio Gorputza haundia eta burua txikia izateak, pentsatzeko eragozpenak sortzen dizkizu.

Sagitaris Gogoratu norbaiten urtebetetzea dela aste honetan.

Capricorn Joan zaitez amona bisitaterra. Hura pozik eta zure patrika diruz beteta.

Aquarius Horrela jarraituz gero, Santamasetako txerria baino lodiago jarriko zara.

Piscis Urteko zure asterik onena hau izango da. Ez alferrik galdu!



UEUren IV. Arrasateko Ihardunaldiak
Monterron Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan
AEDren X. Urteurrenaren barruan

Azaroak, 30, asteartea

Mahaingurua: **Euskararen egoera Arrasaten**
 Hizlaria: **Jose Mari Velez de Mendizabal**
 (euskaltzale, enpresa zuzendaria,
 euskaltzaina, idazlea)

ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA



• ESTHER LEARRETAREN GOMENDIOA •



Organu-emalea izatea gomendatzen du Estherrek. "Denok izan behar genukeela uste dut. Bizi garen artean inorengatik ezer egiteaz akordatzen ez bagara, hil eta gero beste ezertarako behar ez ditugunez", laguntasun hori ematea gutxienekoa iruditzen zaio, benetako beharra duen jendea zain izaten delako. Jendeak bizirik den artean kentzen ote dituzten izaten duen kezkaz, honela dio Estherrek: "norbera bizi den artean norberarenak dira", baina gero ematea kontzientzia-kontua iruditzen zaio.

• PROGRAMAZIOA •

**28 Igandea**

20.00etan
Astebete (errep)
20.30etan
Mondragol.

29 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondragol (errep).
14.05etan
"Lauaxeta" (Errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
"Polizi akademi eroa II"

30 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep).
14.05etan
"Polizi akademi eroa II" (Errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan lehiaketa.
22.00etan
Antzerkia: Markeliñeren "Zeruko lumak"

1 Asteazkena

13.30etan
Eguerdiko Berriak.
13.35etan
ATBketan (errep).
14.05etan
Antzerkia (errep).
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
"2001. Espazioko Odisea"


2 Osteguna

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Tertulixan (errep.)
14.05etan
"2001. Espazioko Odisea" (errep).
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Patxi Biskert
22.00etan
Euskal Filmea: "Ke arteko egunak"

3 Ostirala

13.35
Bakarka (errep).
14.05etan
"Asterix eta Zesarren ustekabea"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
«Astebete».
22.00etan
"Asterix eta Zesarren ustekabea"

• KOMIKIA •



Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

• SOLUZIOAK •

Begia ubeltzean.
JEROLFIKOA
Re.
Bl. 9. Etsiu. 13. Aro. 14. Laba. 18.
3. Ihar. 4. Funda. 5. It. 6. Egikera. 7.
Bertikalak 1. Txalotu. 2. Xaramel.
Aro. 20. Uter. 21. Lau.
daska. 15. Mo. 16. Beha. 17. Ter. 19.
Xahutegi. 10. Aran. 11. It. 12. Lar.
Horizontalak 1. Txiti. 6. EB. 8.
GURUTZEGRAMA

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR



SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

Ipeñarrieta, 5

URRETXU

Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42